



**cederna**  
**garalur**

**2019 Dinamizazio - Txostena**

## Aurkibidea

1. CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN URKEZPENA .....	5
1.1 Sarrera .....	5
1.2 Cederna Garalur Elkarteko gobernu-organoak .....	6
1.3 Cederna Garalur Elkartera elkartutako erakundeak. ....	6
1.4 Cederna Garalur Elkartearen giza baliabideak eta baliabide teknikoak. ....	9
2. CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN JARDUERA EREMUA .....	10
3. DINAMIZAZIO EKINTZAK.....	13
3.1 Proiektuen zerrenda.....	14
3.2 proiektuak. ....	16
PIRINIOAURREKO KULTURA AGENDA ETA TURISMO AGENDA.....	16
TOKIKO AGENDA 21 .....	16
AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA TURISMO SEKTOREARENTZAT. ....	18
LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK .....	18
LARRAUNGO UDALA. DINAMIZAZIO EKINTZAK.....	19
ESPAINIAN ENPLEGUAREN ETA AUTOENPLEGUAREN BITARTEZ DESPOPULAZIOAREN AURKA BORROKATZEKO LAGUNTZAK: 1234/2018 ERREGE DEKRETUA.....	20
EKAIKO ZERRATEGIAREN AUZOA. PLAN ZUZENDARIA. ....	20
BICIMUGI (EUROVELO III).....	20
ERRONKARI-ZARAITZUKO ETA ZANGOZERRIKO ESKUALDE-BLOGAK.....	21
PIRINIOETAKO ERROMATAR GALTZADA .....	21
IRATIKO NATURA BIDEA .....	21
'JOSENEA', GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ZENTROA. ....	22
"ORREAGAKO GATAZKA" ERAKUSKETA-ZENTROA ETA TURISMO-INFORMAZIORAKO GUNEA LUZaiden.....	22
LANKIDETZA AINekin (NAFARROAKO INDUSTRIAREN ELKARTEA). ....	22
ESKOLA-JANGELA OSASUNGARRIAK. ....	23
ALTSASUKO UDALEKO GARAPEN BATZORDEA.....	23
ALTSASUKO UDALEKO MENDI BATZORDEA. ....	24
BERAKO LEHEN SEKTOREAREN BATZORDEA.....	24
TURISMO KONTSEILUA.....	24
PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA. ....	24
TURISMO-OSTATUAK KUDEATZEKO SISTEMA BAT SORTU BAZTANGO 'APOPILO' ELKARTEARENTZAT .....	25


CONVIVIUM YESA 2019: ADINEKO PERTSONEKIN LAGUNKOIAK IZANEN DIREN HIRIAK ETA ERKIDEGOAK.....	25
EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA ZANGOZAN .....	27
IRUNBERRIKO ARROILEN INTERPRETAZIO ZENTROA .....	27
"IRATI SA"ren ERAKUSKETA-GUNEA. ....	28
KONTAGAILU BERDEAK. ....	28
TXISTORRAREN EGUNA ARBIZUN.....	28
ITOIZKO URTEGIKO ATZEALDEKO UHARKA.....	28
OAAE. ZANGOZERRIKO ONDAREARI ARRETA EGITEKO ESKUALDEKO ESTRATEGIA.....	29
'EREMUA', ESTERIBARKO BTT TRAIL GUNEA.....	30
NAFARROAKO PAISAIAREN ESTRATEGIA.....	30
PIRINIOETAKO ESTRATEGIA.....	31
PIRINIOAURREKO ARROETAN, ZANGOZERRIAN ETA NAFARROA ERDIALDEAN EMATEN DEN DESPOPULAZIOARI BURUZKO AZTERKETA.....	31
MAIATZEKO AZOKA, LAKUNTZA .....	33
DONEZTEBEKO UDABERRIKO AZOKA. ....	33
ALTSASUKO URRIKO AZOKA. ....	33
TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN TURISMO LIBURUXKAK.....	33
ARRAS BAZTAN, APOPILO ETA PREST MARKEN FUNDAZIOA.....	34
SAKANAKO ENPLEGU TALDEA.....	35
III JARDUNALDIA. "GOIZUETAN LAN ETA BIZI" .....	35
"IRATI TRENAREN AZKEN-AURREKO BIDAIA", IV. LEHIAKETA.....	35
H2O GUREA.....	35
ALTSASUKO MERKATARITZAREN IV. AZOKA .....	36
JARDUNALDIAK ORDEZKARITZA GISA .....	36
ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK. ....	36
ENPLEGUAREN INGURUKO TOKIKO EKIMENAK: ZALDU JATETXEA.....	37
KINTOAN BARNA.....	37
KLINA: NAFARROAREN BIDE-ORRIA KLIMA ALDAKETAREN AURKA.....	37
KULTURGUNEA.....	37
LIFE NATURA 2000 HARTZA - 'OSO PARDO' FUNDAZIOA.....	38
HERRITARREN PARTAIDETZARI BURUZKO OROITZA-TXOSTENA.....	38
PIRINIOETAKO HARTZAREN INGURUKO MAHAIA.....	38
METROBASERRI-HELPBIDEA.....	39
NAVARREFA.....	39

KLIMAREN ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNA.....	40
ERROIBAR - ERRONKARIKO MIKOLOGIA PARKEA.....	40
EDERBIDEA ZENTROEN BIDERAGARRITASUN PLANA, PLAZAOLAREN BIDEAN.....	40
BANDA ZABALEKO PLAN ZUZENTZAILEA, 2016-2020.....	41
NAFARROAKO LAN AUTONOMOAREN PLANA, 2017-2020.....	42
HURBILTASUNEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO PLANA, 2018-2020.....	42
NAFARROAKO GOBERNUAREN LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO PLATAFORMA (NALEP).....	43
2019ko 'VIANAKO PRINTZEA' KULTURAREN SARIA. FERNANDO HUALDE HAUTAGAITZAREN AURKEZPENA.....	44
PIRINIOETAKO LAN KOMUNITATEAREN (PLK) PIRINIOETAKO MUGAZ GAINDIKO ESTRATEGIAREN AURKEZPENA.....	44
DESI ADIERAZLEEN AURKEZPENA.....	44
LANGILEAK AUKERATZEKO PROZESUAK.....	45
GURUTZE GORRIAREN LAGUNTZA PROGRAMA ERREFUXIATUENTZAT, AGOITZ.....	46
PIRINIOETAKO TOKI ERAKUNDEEN ENPLEGU-PROGRAMA, LANGABETUAK KONTRATATZEKO.....	46
PROMOBIOMASSE PROIEKTUA ETA BIOMASAKO LOGISTIKA ARLOA AGOITZEN.....	46
SLOWCAL PROIEKTUA: "ELIKADURA OSASUNTSU BATERAKO LANKIDETZA BERRITZAILEAK".....	47
ORBAIZETAKO ARMA- OLAREN BALIOA NABARMENDU.....	47
BURGIKO GARBIGUNEA.....	48
NOBEL HIRIEN EUROPAKO SAREA.....	48
XPLORA SAREA.....	48
ERREMENDIKO FINKA ESPERIMENTALA SUSPERTU.....	49
SASCIRATI.....	49
ELIKADURA BURUJABETZA ETA MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK.....	49
TURISMOA FRANTZIAKO DONEJAKUE BIDEAN: BIDEA SUSTATU ETA TURISMO BULEGOEI BABESA EMAN.....	50
IRUNBERRI, ARBAIUN, BENASA ETA UGARRON ARROILEN ETA LA PIEDRA ETA SAN ADRIANGO MALKARREN ERABILERA PUBLIKOA.....	51
EKONOMIA GARAPENEN OSTIRALAK.....	51
ZANGOZAKO POTXAREN VII. GORAZARREA.....	51
ERRUMANIAKO TOKIKO EKINTZA TALDEEN BISITA.....	51
ENPRESA MINTEGIAK.....	52
BAZTAN-BIDASOAKO ARDI LATX ARRAZAKO XVII. LEHIAKETA.....	53
UDABERRIKO XX. EZTI AZOKA ETA AHARI LEHIAKETA, 2019.....	53

PIRINIOTAR BEHI ARRAZAREN XXXII. LEHIAKETA ETA PIRINIOTAR BEHI ARRAZAREN III. ARGAZKI LEHIAKETA.....	54
ESLABAKO SANTA CRIZ AZTARNATEGIA.....	54
3.3 Beste erakundeekiko lankidetza. ....	55
4. ONDORIOAK.....	56

# 1. CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN URKEZPENA

## 1.1 Sarrera



1991n sortua, Cederna Garalur Elkarte Tokiko Ekintza Talde bat da (TET). Elkartearen helburua Nafarroako Mendialdearen garapen sozioekonomikoa sustatzea da, herritarren bizikaltatea nabarmen hobetuko duten eta zerbitzu publikoak eta ekonomia-ehuna finkatuko dituzten politikak eta ekintzak babestuz. Horretarako, lurraldeko eragile publikoekin eta pribatuekin lan eta elkarlan estua garatzen du.

Cederna Garalur Elkartearen helburua da Nafarroako Mendialde osoaren garapen endogenoa,, jasangarria eta harmonizatua sustatzea, lurraldeak dituen baliabide ekonomiko, natural, kultural eta giza baliabideak aprobetxatuz, tokiko ekonomia suspertu eta gizarte- eta ekonomia-ehuna bultzatze aldera.

Tokiko Ekintza Taldea den aldetik, Elkartearen lana ondoren aipatzen diren balioetan oinarritzen da, eta balio horiek, berriz, LEADER lan-metodologian oinarritzen dira: "*bottom-up*" metodologia, parte-hartzea, lurraldearekiko elkarrekintza, lankidetzeta, aukera-berdintasuna eta genero-berdintasuna.

- "*Bottom-up*" estrategia: elkartearen epe luzerako estrategiak tokian tokiko premietatik sortzen dira, eta, aldi berean, eskaera horiei erantzungo dieten proiektuak eta ekimenak martxan jartzeko esparrua dira.
- Parte-hartzea: Cederna Garalur Elkarte Nafarroako Mendialdeko herritarrek, enpresek eta erakunde publikoek parte hartzeko foro egonkorra eta iraunkorra da, lurraldearen ezagutza elkartzen duena.
- Lankidetzeta: Cederna Garalur Elkarteak lankidetzeta bultzatzen du tokian-tokian, eskualde-mailan, nazioan, baita Europa mailan ere, lankidetzeta hori tokiko garapenerako eragilea den aldetik.
- Berdintasuna: Cederna Garalur Elkartearen iritziz, Nafarroako Mendialdea garatuko bada, biztanleria osoaren aukera-berdintasuna ezinbestekoa da, eta bereziki gazteei eta, batez ere, emakumeei protagonismoa eman behar zaie.

Gaur egun, Cederna Garalur Elkarte 131 erakundek osatzen dute: erakunde publikoak, nekazaritza-arloko sindikatuak, enpresa-, sektore- eta herritar-elkarteak.

Aldi berean, Cederna Garalur Elkarte "Espainiako Landa Garapeneko Sareko" (REDR) kidea da, baita Nafarroako Marketin Klubekoa eta ANELekoa ere (Nafarroako Lan Enpresen Elkarte). Halaber, Nafarroako Turismo Kontseiluan parte hartzen du, baita Nafarroako Lurralde Estrategiaren Gizarte Kontseiluan ere.

Bestalde, 2017ko azaroan, Cederna Garalur Elkarteak "InnovaRSE" zigiluaren aintzatespena jaso zuen. Zigilua Nafarroako Gobernuak ematen die arian-arian Enpresako Erantzukizun Sozialeko alderdiak ezartzen dituzten erakundeei. Europako Batzordeak enpresa kudeatzeko sustatzen duen eredu berria da, eta enpresan hartzen diren erabakiek ekonomian, gizartean eta ingurumenean duten eragina hartzen du kontuan.

## 1.2 Cederna Garalur Elkarteko gobernu-organoak

Elkartearen estatutuen arabera, batzar nagusia, zuzendaritza-batzordea, batzorde betearazlea eta presidentetza dira elkartearen gobernu-organoak.

<p><b>BATZAR NAGUSIA</b></p>	<p>Batzar nagusia da Elkartearen organo subiranoa eta gorena, eta elkartutako erakunde guztiek osatzen dute.</p> <p>Elkartearen garrantziko agiri organikoak onartzen ditu, eta garrantzi handieneko aferak lantzen ditu.</p>
<p><b>ZUZENDARITZA BATZORDEA</b></p>	<p>Elkartearen gobernu, kudeaketa, administrazio eta ordezkapenerako kide anitzeko organoa da.</p> <p>Honako hauek dira horren eginkizunak: batzar nagusiak hartutako akordioak bete, batzarrean erakundearen urteko jardueren memoria eta txosten ekonomikoa aurkeztu, eta urteko aurrekontuak eta elkartutako erakundeen kuotak prestatu.</p> <p>Zuzendaritza-batzordea 34 kidek osatzen dute: eskualde-erakundeetako 17 ordezkari, gizarte-erakundeetako 13 ordezkari eta bestelako elkarte eta erakundetako 4 ordezkari.</p>
<p><b>BATZORDE BETEARAZLEA</b></p>	<p>Kide anitzeko organoa da: bere lurralde-eremuan elkartera aurkeztutako proiektuak bultzatzen, aztertzen, irizpena ematen, erabakitzen eta bideratzen ditu.</p> <p>Zuzendaritza-batzordeko 19 ordezkari osatzen dute: toki-erakundeetako 9 kide ordezkari, erakunde sektorialetako 8 ordezkari, eta gizarte-erakundeetako bi ordezkari.</p>
<p><b>PRESIDENTETZA</b></p>	<p>Elkartearen organo betearazlea da, eta Elkartearen ordezkapen legala du. Kide anitzeko aginte-, administrazio-, kudeaketa- eta egikaritze-organoak deitzen ditu eta horien buru da.</p>

Estatutuen arabera, Elkarteko gobernu-organoak parekideak izanen dira; xede horretarako, sexu bakoitzak % 40 eta & 60 bitarteko ordezkartza izanen du.

## 1.3 Cederna Garalur Elkartera elkartutako erakundeak.

Gaur egun, Cederna Garalur Elkarte Nafarroako iparreko 131 erakunde osatzen dute; horietatik 117 erakunde publikoak dira eta 24 pribatuak, eta lurraldeko gizarte- eta ekonomia-ehuna ordezkaten dute.

Udalerriak	Udalerriak
Abaurregaineko Udala	Irañetako Udala
Abaurrepeko Udala	Irurtzungo Udala
Oibarko Udala	Izabako Udala
Altsasuko Udala	Iturengo Udala
Agoizko Udala	Itzagaondo Ibarreko Udala
Araizko Udala	Itzaltzuko Udala
Arakil Ibarreko Udala	JAUURIETAKO UDALA
Aranoko Udala	Xabierreko Udala
Arantzako Udala	Lakuntzako Udala
Arbizuko Udala	Larraungo Udala
Artzibarko Udala	Leitzako Udala
Aresoko Udala	Lekunberriko Udala
Aribeko Udala	Lergako Udala
Arruazuko Udala	Lesakako Udala
Atezko Udala	Ledeako Udala
Aurizko Udala	Lizoainibar - Arriasgoitiko Udala
Bakaikuko Udala	Longida Ibarreko Udala
Basaburuko Udala	Irunberriko Udala
Baztango Udala	Luzaideko Udala
Beintza-Labaiengo Udala	Eloko Udala
Berako Udala	Otsagabiko Udala
Bertizaranako Udala	Oizko Udala
Beteluko Udala	Olaztiko Udala
Burgiko Udala	Ollarango Udala
Kasedako Udala	Orbaitzetako Udala
Rocaforteko Kontzejua	Orbarako Udala
Donamariako Udala	Orontzeko Udala
Doneztebeko Udala	Oroz Beteluko Udala
Elgorriagako Udala	Orreagako Udala
Eratsungo Udala	Petilla de Aragoneko Udala
Ergoienako Udala	Erromantzatuko Udala
Erroibarko Udala	Erronkariko Udala
Eslabako Udala	Zareko Udala
	Zangozako Udala
Espartza Zaraitzuko Udala	Sartzeko Udala
Esteribarko Udala	Sunbillako Udala
Etxalarko Udala	Uharte Arakileko Udala
Etxarri Aranazko Udala	Ultzama Ibarreko Udala
Ezkarozeko Udala	Untziti Ibarreko Udala
Ezkurrako Udala	Urdazubiko Udala
Ezporogiko Udala	Urdiaingo Udala
Galipentzuko Udala	Urraulgoitiko Udala
Galozeko Udala	Urraulbeitiko Udala
Garaioako Udala	URROZKO UDALA



Gardeko Udala	Urrotz Hiriko Udala
Garraldako Udala	Urzainkiko Udala
Goizuetako Udala	Uztarrozeko Udala
Gorzako Udala	Bidankozeko Udala
Hiriberri Aezkoako Udala	Esako Udala
Ibargoitiko Udala	Ziordiko Udala
Igantziako Udala	Zubietako Udala
Imozko Udala	Zugarramurdiko Udala

#### IBARREKO BATZARRAK

Erronkari Ibarreko Batzarra

Aezkoa Ibarreko Batzarra

Zaraitzu Ibarreko Batzarra

#### MANKOMUNITATEAK

Sakanako Mankomunitatea

#### ERAKUNDE SEKTORIALAK

Sakanako Enpresaburuen Elkarte (AES)

AMUR (Nafarroako landa-eremuetako emakumeen elkarte)

ANEL (Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarte)

ARESPA (Ondare Historikoa Berriztatzen duten Enpresen Espainiako Elkarte)

Zuhaitz Zaharren Lagunak

Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarte

BKZ (Bidasoa Kultur Zerbitzuak, SM)

CAIXA BANK

CPAEN NNPEK (Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua)

Denok Bat Federazioa

EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)

FORESNA/ZURGAIA (Nafarroako Baso Elkarte)

Nafarroa Bizirik Fundazioa

Sustrai Erakuntza Fundazioa

GURELUR (Ingurune naturala babesteko Nafarroako funtsa)

JOSENEA (lan-elkarte)

Nafarroako Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa

NAPARBIDEAK (Nafarroako ohiko artisau-elikagaien Elkarre Kooperatiboa)

NAPARLUR (elikadura-arlokoak ez diren esku-langileen Nafarroako elkarte)

RECKREA (Nafarroako Landa Hotelen Elkarte)

Sakana Garapen Agentzia

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte

UAGN (Nafarroako nekazarien eta abeltzainen batasuna)

UCAN (Nafarroako nekazaritza-kooperatiben batasuna)

## 1.4 Cederna Garalur Elkartearen giza baliabideak eta baliabide teknikoak.

### 1.4.1 Cederna Garalur Elkartearen baliabide fisikoak. Azpiegiturak.

Cederna Garalur Elkartearen bulegoa Antsoainen dago. Halaber, Elkartek, bere jarduketak gauzatzeko, enpresentzako zerbitzu-zentro bana du Izizen, Arbizon eta Lesakan, baita jendeari arreta egiteko hamazazpi bulego ere landa-garapeneko 8 agentzietan.

BALIABIDE TEKNIKOAK. AZPIEGITURAK.	
Eskualdeko garapen-agentziak	8
Jendeari harrera egiteko bulegoak	17
Zerbitzu-zentroak (Arbizu, Lesaka, Izize)	3

### 1.4.2 Tokiko garapen-agentziak (TGAK).

Nafarroako Mendialdeko eskualdeen dinamizazio-proiektuak eraginkortasunez kudeatzeko asmoz, tokiko eragileekin lankidetzan estuan jardunez lurraldearen eskaerei erantzun



eraginkorrak eta hurbilekoak emateko, eta, aldi berean, Elkartearen baliabide mugatuak optimizatuz, Cederna Garalur Elkartek Nafarroako Mendialdea toki-garapenerako zortzi agentzietan banatu du, eta agentzia horietako bakoitza "Tokiko Enplegu eta Garapen Eragile (TEGE)" batek kudeatzen du. Jendeari arreta emateko hainbat bulego dituzte beren eskualdeetan.

Garapen Agentziak oso finkatuta daude Nafarroako Mendialdean. Tokiko irudi dinamizatzaile nagusi bihurtu dira; lurraldeari eta Elkarteari berari lan egiten duten eskualdeari eta eskualdearen giza eta ekonomia-baliabideei buruzko ezagutza sakona ematen die.

Askotarikoak dira garapen-eragilearen eginkizunak: TGEek lurraldeen analisiak egiten dituzte, aholkua ematen diete toki-erakundeei proiektuak martxan jartzen, finantziarioa edo bazkideak bilatzen dituzte, tokiko foroak koordinatu eta horietan parte hartzen dute, enplegua sustatzen dute, eta eskualdeko nahiz nazioko plangintza estrategikoko foroetan toki-erakundeak ordezkatzeko dituzte; besteak beste, Tokiko Agenda 21ean, lurraldea antolatzeko planetan eta ingurumen-planetan (Nafarroako Hondakinen Plan Nagusia, kasu), eskualde-garapeneko estrategietan (RIS3, kasu) eta herritarrak dinamizatzeko planetan.

Aldi berean, Tokiko Garapen Eragileek Cederna Garalur Elkartearen bulego zentrolean eta Arbizuko, Izizeko eta Lesakako zerbitzu-zentroetan diharduen talde adituaren babes teknikoak jasotzen dute. Horrela, talde txiki batekin Cederna Garalur Elkartek bere zerbitzuak hurbil diezazkioke tokiko biztanleriari, horiek enpresak, toki-erakundeak, partikularrak nahiz elkartek izan, berdin.

### 1.4.3 Giza Baliabideak. Cederna Garalur Elkartearen lantalde teknikoak.

Cederna Garalur Elkartek hainbat lanbide-profiletako 20 lagunez osatutako giza lantaldea dauka, eta lurraldea dinamizatzeko proiektuak definitzeko eta martxan jartzeko koordinatzen dira. Proiektu horien buru Elkarteak edo lurraldeko erakundeak dira.




<b>GIZA BALIABIDEAK.</b>	<b>20</b>
<b>Zuzendaritza-kudeatzailetza</b>	<b>1</b>
Ibon Mimentza de Irala	
<b>Tokiko enplegu- eta garapen-eragileak (TEGEak):</b>	<b>8</b>
Susana Mendinueta (Sakana)	
Elena Irigoyen (Mendialdea)	
Iñigo Agesta (Bertizarana-Malerreka-Bortziriak)	
Marian Cestau (Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi)	
Eduarne Miguel (Esteribar-Erroibar-Aezkoa)	
Carlos García (Pirinioaurreko arroak)	
Idoia R. Goñi (Erronkari-Zaraitzu)	
Gabriela Orduna (Zangoza)	
<b>Administrazioa</b>	<b>2</b>
Puy Goicoechea	
Julia Calvillo	
<b>Enpresak, enplegua eta ekintzailetza</b>	<b>2</b>
Raquel Aldaz	
Oskia Lazkoz	
<b>Landa Garapenerako Programaren kudeaketa</b>	<b>1</b>
Eduarne Elso	
<b>Turismoa</b>	<b>1</b>
Nahikari Uriarte	
<b>Teknologia Berriak eta Komunikazioa</b>	<b>1</b>
Lorea Jamar	
<b>Zerbitzu-zentroetako arreta</b>	<b>3</b>
Lesaka: Begoña Iparragirre	
Izize: Bakartxo Pozas	
Arbizu: Oskia Lazkoz	
<b>Lurralde-zerbitzuak</b>	<b>3</b>
Uraren Bailarak: Irantzu Pastor	
Mendialdeko lehen sektorearen dinamizazioa: Amaieur Unzueta	
Pirinioen dinamizazioa: Andrea R. Goñi.	

## 2. CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN JARDUERA EREMUA

Landa Garapeneko zuzendari nagusiak uztailaren 13an eman zuen 514/2015 ebazpenean LEADER lurraldeari dagozkion 122 udalerriren zerrenda ezartzen da Cederna Garalur Elkartearantz, 2014-2020 aldirako.

EIN KODEA	UDALERRIA	EIN KODEA	UDALERRIA	EIN KODEA	UDALERRIA
31003	Abaurregaina	31082	Etxalar	31159	Irunberri
31004	Abaurrepea	31084	Etxarri Aranatz	31248	Luzaide
31009	Oibar	31085	Etxauri	31172	Elo
31010	Altsasu	31101	Ezkabarte	31181	Nabaskoze
31017	Anue	31093	Ezkaroze	31185	Otsagabia
31019	Agoitz	31102	Ezkurra	31186	Odieta
31020	Araitz	31103	Ezporogi	31187	Oitz
31025	ARAKIL	31110	Galipentzu	31188	Olaibar
31024	Arano	31111	Galoze	31189	Olazti
31022	Arantza	31112	Garaioa	31194	Ollo
31027	Arbizu	31113	Garde	31195	Orbaitzeta
31028	Artzibar	31115	Garralda	31196	Orbara
31031	Areso	31117	Goizueta	31198	Orontze
31033	Aria	31118	Goñi	31199	Orotz-Betelu
31034	Aribe	31119	Gorza	31211	Orreaga
31037	Arruazu	31256	Hiriberri Aezkoa	31203	Petilla Aragoi
31040	Atetz	31124	Ibargoiti	31209	Erromantzatua
31058	Auritz	31259	Igantzi	31210	Erronkari
31044	Bakaiku	31126	Imotz	31212	Zare
31049	Basaburua	31127	Irañeta	31213	Saldias
31050	Baztan	31904	IRURTZUN	31216	Zangoza.
31137	Beintza-Labaien	31128	Izaba	31222	Sartze
31052	Belaskoain	31129	Ituren	31226	Sunbilla
31250	Bera	31130	Iturmendi	31123	Uharte Arakil
31054	Bertizarana	31131	Itza	31236	Ultzama
31055	Betelu	31132	Itzagaondoa	31237	Untziti
31253	Bidaurreta	31133	Itzaltzu	31239	Urdazubi
31059	Burgi	31134	Jaurrieta	31240	Urdiain
31069	Kaseda	31135	Xabier	31241	Urraulgoiti
31071	Gazteluberri	31136	Txulapain	31241	Urraulgoiti
31075	Ziritza	31138	Lakuntza	31242	Urraulbeiti
31081	Donamaria	31140	Lantz	31244	Urrotz
31221	Doneztebe	31144	Larraun	31243	Urrotz Hiria
31083	Etxarri	31146	Leatxe	31245	Urzainki
31087	Elgorriaga	31149	Leitza	31247	Uztarroze
31090	Eratsun	31908	Lekunberri	31252	Bidankoze

31091	Ergoiena	31151	Lerga	31261	Esa
31092	Erroibar	31153	Lesaka	31262	Zabaltza
31094	Eslaba	31155	Ledea	31073	Ziordia
31095	Espartza Zaraitzu	31156	Lizoain-Arriasoiti	31263	Zubieta
31098	Esteribar	31158	Longida	31264	Zugarramurdi



Nafarroako Mendialdeko udalerrak Ipar-mendebaldea, Pirinioak, Iruñerria eta Nafarroa Erdialdea izeneko nekazaritza-eskualdeetan daude, eta horiek bat datoz Iruñeko, Zangozako eta Erriberriko merindadeekin, eta Nafarroa 2000 Zonifikazioan Iruñea, Pirinio eta Erdialdea deritzen eremuekin.

"Nafarroako Mendialdea" osatzen duten udalerrri guztiak landa-udalerrri gisa, Mendialdeko Eremuko udalerrri gisa nahiz eremu kalteberako udalerrri gisa sailkatuta daude.

Nafarroako Mendialdeko egoera demografikoa, soziala eta ekonomikoa ezaugarri horiekin laburbiltzen dira:

- Biztanleria-dentsitate baxua.

Nafarroako Mendialdea nekazaritzako eskualdea da argi eta garbi, eta, oro har, biztanleria-dentsitate baxua dauka. EINen 2018ko datuen arabera, batez besteko populazio-dentsitatea 20,87 biztanle/km<sup>2</sup>-ko da. Biztanleriak nukleo nagusietan kontzentratzeko joera du, eta udalerrri txikienetako biztanleriaren murrizketa-indizea handia da.

- Biztanleria zahartua.

65 urtetik gorakoen tasa handitu egin da 2016tik aurrera. INEren iturrien arabera (2017), 65 urtetik gorako pertsonen tasa % 18,39koa da, nahiz eta balio horiek nabarmen gainditzen diren Nafarroako Mendialdeko ekialdeko eskualdeetan. Horrek dakarren mendekotasun-tasak Foru Erkidegoaren batez bestekoa gainditzen du. Heldu-gazteek heldu-nagusiekin duten ordezkapen-indizea Nafarroako batez bestekoa baino txikiagoa da.

- Genero-desoreka.

Nafarroako Mendialdeko populazioak maskulinitate-tasa altua du, Nafarroako batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa; horrek agerian uzten du emakumeei neurri handiagoan eragiten dien emigrazio selektiboa dagoela. Arrazoiak bi izan daitezke: batetik, emakumeek zailtasun handiagoak dituztela inguruan lana aurkitzeko, eta, bestetik, bereziki emakumeengan eragina duten gizarte-baldintzatzaileak egotea (hurbileko zerbitzuen defizita, hala nola haurtzaindegiak edo adinekoen egoitzak, bigarren mailako eginkizuna gizonarekiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzietan -ordaintzen ez den eta aitortzen ez den lana- eta abar).

- Cederna Garalur Elkartearen lurralde-esparruaren profil ekonomikoa.

Biztanleria aktiboaren okupazio-tasek, Nafarroako Enplegu Behatokiaren 2013ko datuen arabera, landatartasun handia erakusten dute: % 1,9k lehen sektorean dihardu, % 7,3k eraikuntzan, % 13,5ek industrian eta % 77,3k zerbitzuetan.

SEPE - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatistiken arabera, 2017an Nafarroako mendialdeko biztanleriaren jarduera-tasa % 63,19 da, eta langabezia-tasa % 6,5; 2013tik nabarmen hobetu da.

Enpresa-ehuna nagusiki ETEek eta batez ere mikroETEek osatzen dute. Turismoa hedatzen ari den jarduera ekonomikoa da eskualdean, dibertsifikaziorako eta ekonomia-osagarritasunerako alderdi bihurtu dena.

### **3. DINAMIZAZIO EKINTZAK**

Tokiko Ekintza Taldea den aldetik, ez da erraza landa-eremuaren dinamizazio-kontzeptua definitzea. Normalean, TET baten lana Taldeak proiektu zehatzak kudeatu eta gauzatzearekin

lotzen da, lurralde osoari mesede egiten dioten berariazko ekintzekin, kasu honetan Nafarroako Mendiari.

Cederna Garalur Elkarteak halako proiektuen buru da, eta horiek gauzatzen ditu. Nolanahi ere, Nafarroako Mendialdean Elkarteak duen balio erantsi nagusia eskualde bakoitzeko tokiko eragileek gidatutako ekimenak martxan jartzeko duen inplikazioa da. Jarraian aipatuko den bezala, Elkartearen inplikazioak berarekin dakartza foroetan parte hartzea, lan-bilerak antolatzea, eragileekin hitz egitea, erakundeak ordezkatzeko, oroitidazkiak eta proiektuak aurkeztea edo zabaltzea. Ekintza indibidual horien multzoari "dinamizazioa" deitzen diogu. Horrek aukera ematen digu, lantalde txiki batekin, tokiko premia aldakorrei azkar, malgutasunez eta eraginkortasunez erantzuteko.

Ondorengo orrialdeetan, Cederna Garalur Elkartearen taldeak Nafarroako Mendialdean laguntza eman dien dinamizazio-ekintza asko zehazten dira. Oroitidazki horrek, ordea, ez ditu biltzen Elkarteak esku hartu duen ekimen guztiak, zaila baita Elkartearen inplikazio-maila kuantitatiboki justifikatzea.

Halaber, txostenak ez du jasotzen jada finantza-esparru jakin bat duten proiektuekiko Elkartearen lana: 2014-2020 Landa Garapenerako Programa, enplegua eta ekintzailtza sustatzeko ekintzak Nafarroa Ekintzailea Sarearen barruan (NEZ-Nafar Lansarearekin batera finantzatuta), edo Landa Garapenerako Departamentuak Tokiko Ekintza Taldeekin eta Lursarearekiko berariazko hitzarmen baten barruan finantzatutako ekonomia zirkularreko jarduerak.

### 3.1 Proiektuen zerrenda.

Proiektuaren izena
Pirinioaurreko kultura-agenda eta turismo-agenda
Tokiko Agenda 21
Aholkularitza eta prestakuntza turismo-sektoreari
Laguntzak eta dirulaguntzak.
Larraungo Udala. Dinamizazio-ekintzak
Espanian despulazioaren aurka borrokatzeko laguntzak, enpleguaren eta autoenpleguaren bitartez 1234/2018 Errege Dekretua.
Ekaiko zerrategiaren auzoa Plan Zuzendaria
BICIMUGI (Eurovelo III)
Zangozerriko eskualde-mailako blogak
Pirinioetako erromatar galtzada
Iratiko Natura Bidea
'Josenea', gizarteratzeko eta laneratzeko zentroa
"Orreagako gatazka" erakusketa-zentroa eta turismo-informaziorako gunea Luzaiden.
Lankidetzak AINekin (Nafarroako Industriaren Elkarteak)
Eskola-jangela osasungarriak
Altsasuko Udaleko garapen-batzordea
Altsasuko Udaleko mendi-batzordea
Berako lehen sektorearen batzordea
Turismo-kontseilua

Plazaola Partzuergoa
Turismo-ostatuak kudeatzeko sistema bat sortu Baztango Apopilo Elkartearentzat
Convivium Yesa 2019: adineko pertsonekin lagunkoiak izanen diren hiriak eta erkidegoak
Cederna Garalurrek antolatutako ikastaroak
Beste erakunde batzuen ikastaroak antolatzeko lankidetzeta.
Emakumearen egunaren ospakizuna Zangozan
Irunberriko Arroilen interpretazio-zentroa
"IRATI SA"ren erakusketa-gunea
Kontagailu berdeak
Txistorraren eguna Arbizun
Itoizko urtegiko atzealdeko uharka
ECAP. Zangozerriko Ondareari Arreta egiteko Eskualdeko Estrategia
Eremua, Esteribarko BTT Trail-gunea
Paisaiaren nafar estrategia
Pirinioetako estrategia
Pirinioaurreko arroetan, Zangozerrian eta Nafarroa Erdialdean ematen den despoblazioari buruzko azterketa
EBren politika, programa eta laguntzei buruzko hedapena eta informazioa
Maiatzeko azoka, Lakuntza
Altsasuko urriko azoka.
Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-liburuxkak
Arras Baztan, Apopilo eta Prest marken fundazioa
Sakanako enplegu-taldea
III. Jardunaldia. "Goizuetan Lan eta Bizi"
"Irati trenaren azken-aurreko bidaia", IV. lehiaketa
H2O GUREA.
Altsasuko merkataritzaren IV Azoka
Jornadas en calidad de representación.
Ondarearen Europako jardunaldiak.
Enpleguaren inguruko tokiko ekimenak: Zaldu jatetxea
Kintoan barna
KLINA: Nafarroaren bide-orria klima-aldaketaren aurka.
Kulturgunea.
Life natura 2000 Oao - Oso Pardo Fundazioa.
Herritarren partaidetzari buruzko oroitza-txostena
Metrobaserri - Helpbidea.
NAVARREFA.
Erroibar - Erronkariko mikologia-parkea
Ederbidea Zentroen bideragarritasun-plana, Plazaola Bidean.
Banda zabaleko plan zuzentzailea, 2016-2020.
Nafarroako Enplegu Autonomoaren Plana, 207-2020.
Hurbiltasuneko txikizkako merkataritza sustatzeko plana, 2018-2020.
Nafarroako Gobernuko lizitazio elektronikorako plataforma (NALEP)
2019ko Vianako Printzea Kulturaren Saria. Fernando Hualde hautagaitzaren aurkezpena.
Pirinioetako Lan Komunitatearen (PLK) Pirinioetako mugaz gaindiko Estrategiaren aurkezpena.
DESI adierazleen aurkezpena.
Langileak aukeratzeko prozesuak.



Gurutze Gorriaren laguntza-programa errefuxiatuentzat, Agoitzen.
Pirinioetako erakundeen enplegu-programa, langabetuak kontratatzeko.
PROMOBIOMASSE proiektua eta biomasa logistikako arloa Agoitzen.
SLOWCAL proiektua: "Elikadura osasuntsu baterako Lankidetzak Berritzaileak"
Orbaitzetako Arma Errege Fabrikaren balioa nabarmentzea.
Burgiko garbigunea.
Nobel Hirien Europako Sarea.
Xplora sarea.
Erremendiko finka esperimentalak suspertu.
SASCIRATI.
Elikadura-burujabetza eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak.
Turismoa Frantziako Done Jakue Bidean: Bidea sustatu eta turismo-bulegoei babesa eman.
Ekonomia-garapenerako ostirala.
Zangozako potxaren VII. gorazarrea.
Errumaniako tokiko ekintza-taldeak bisita.
Enpresa-mintegiak
Baztan-Bidasoako ardi latx arrazako XVII. lehiaketa.
Udaberriko XX. Ezti-azoka eta ahari-lehiaketa, 2019.
Piriniotako behi-arrazaren XXXII. lehiaketa eta Piriniotako behi-arrazaren III. argazki-lehiaketa.
Eslabako Santa Criz aztarnategia.

## 3.2 proiektuak.

### PIRINIOAURREKO KULTURA AGENDA ETA TURISMO AGENDA

Cederna Garalur Elkarteak, Pirinioaurreko Arroen Garapen Agentziaren bitartez, eskualdeko herri guztietako kultura- eta turismo-agendak biltzen dituen aldizkaria argitaratzen du, eta posta elektronikoz zabaltzen du Agentziaren harreman-agendara: udalak, enpresak, elkarrekin eta partikularrak.

Aldizkariak argitaratzeko, honako lan hauek egiten ditu Cederna Garalur Elkarteak: ekitaldiak bildu eta jardueren egutegia berrikusi; ekitaldiak herrira sailkatu; aldizkaria Word formatuan argitaratu, edukiak eguneratuta; aldizkaria posta elektronikoz bidali.

Aldizkaria jarduera bat programatzen den aldiko eguneratzen da.

2019an 25 aldizkari argitaratu eta banatu dira.

### TOKIKO AGENDA 21

Tokiko Agenda 21 garapen-plan edo udal-estrategia bat da, integrazioan oinarrituta, eta ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-politiken inguruko irizpide jasangarriekin. Garapen-plan hori toki-agintarien, teknikarien, inplikaturako eragileen eta udalerriko herritarren parte-hartzearekin eta horien artean adostutako erabakiekin garatzen da.

Cederna Garalur Elkartearen kasuan, sei Garapen Agentziek (Pirinioaurreko arroak, Erronkari-Zaraitzu, Esteribar-Eroibar-Aezkoa, Mendialdea, Bidasoa eta Zangozerria) esku hartu dute haien udalerrietako Tokiko Agenda 21etan.

Horien eginkizunak dira: deialdia zabaldu, proiektuak aztertu eta balioetsi, proiektuak aurkeztu eta bideratzeko aholkularitza eman, kontratazio mahaietan parte hartu, udal-ordezkariekin bilerak egin.

Cederna Garalur Elkarteak hainbat modutan egiten du lan eskualdeetako Agenda 21etan:

- Zabalpena:
  - "Donejakue bidea - Irati" Tokiko Agenda 21. Tokiko Agenda 21en laburpen-txostena egin, udalbatza izendatu berrientzat. Udal-ordezkariekin bilera egin, proiektuen inguruko proposamenak eztabaidatzeko.
- Eskualdeko proiektuak aztertu:
  - Otsagabiko Tokiko Agenda 21: EUTSI mikrokooperatibarekin lankidetzan, zahartze aktiboko proiektu bat aztertu eta tokiko bidezidorren sarean kirol-jarduerak egin, eta ibilbide horiei balioa eman eremuko hirugarren adineko biztanleen artean.
- Laguntzak eskatu eta kudeatu. 2019an 15 proiektu aurkeztu ziren:
  - Ibar Subkantauriarretako Tokiko Agenda 21 (Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama, Anue, Lantz eta Odieta): Atezko bidezidorren sarea eta Ultzamako bidezidorren sarea.
  - Mendialdeko Tokiko Agenda 21 (Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri): Beteluko zaharren egoitzan markesina; Leitzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Jubiloteka; Mendialdeko Mankomunitateko hondakinen prebentziorako lantegiak; eta harategietara eta arrandegietara tupperrak eramateari buruz Mendialdeko Mankomunitateak sustatutako proiektua, azkenean gauzatu ez bazen ere.
  - Tokiko Agenda 21, Agoitz. Zahartze aktiboko proiektua.
  - Tokiko Agenda 21, Bortziriak. Kanpoan kirola egiteko makinak; Jubilotekarentzako laguntzak: urteko jarduera-zerbitzua, ibarreko adinekoentzat; eta "Jaibus" izeneko proiektua, jaiegunetarako autobus-zerbitzua, bide-segurtasuna hobetze aldera.
  - Tokiko Agenda 21, Malerreka. Ibarreko ura arazteko inbertsioak; ura arazteko zerbitzurako langileak kontratatu; "Jubiloteka" edo hirugarren adinekoentzako urteko jarduera-zerbitzua.
  - Tokiko Agenda 21, Donejakue bidea - Irati. "Botika gutxitu eta gehiago mugitu" izeneko proiektua, jarduera fisikoari eta osasunari buruzko, Esteribarko, Uharteko eta Eguesko udalek aurkeztua, Uharteko Lehen Mailako Arretarako Zentroarekin lankidetzan.
- 2019ko diagnostikoak eta ekintza-planak lantzen lagundu.
  - Tokiko Agenda 21, Agoitz. Talde Eragilean, Herritarren Taldean eta Foroan parte hartu, baita NELS - Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako sareko Batzorde Kudeatzailean eta ordezkartzan ere.

- Tokiko Agenda 21, Iratiko HHSM; Itzagaondoa, Agoitz, Urraulbeiti eta Urraulgoiti barne.
- Tokiko Agenda 21, Zangozako Mankomunitatea; Irunberri barne.

### **AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA TURISMO SEKTOREARENTZAT.**

Jarduera horiek Cederna Garalur Elkarteak turismo enpresei ematen dizkien aholkularitza ekintzetan barnean txertatzen dira, enpresa horiek ematen duten zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera. Ekintzen artean daude aholkularitza, prestakuntza edo kalitate- planen ezarpenaren jarraipena egitea.

2019an aholkularitza- eta prestakuntza-ekintzak landu ziren:

- Aholkularitza turismo-arloko 8 enpresari:
  - Zazpi bisita turismo-establezimenduetara, turismo-arloko araudiari, zerbitzuen kudeaketari eta merkaturatzeari buruzko orientazioa emateko.
  - Bisitaldia Arizkungo Santxotena eskultura-erakusketa zentrora, Arizkungo Bozate auzora egin daitezkeen bisita gidatuen zerbitzu berri bati buruzko aholkuak emateko, agoten historia azaltzeko.
- Prestakuntza: prestakuntzari eta bezeroarentzako arretari buruzko hiru lantegi egin ziren, eta horietan 30 lagunek hartu zuten esku:
  - Bezeroari arreta egiteko lantegia: Ariben eta Irunberrin (urria eta azaroa), eta 21 lagunek hartu zuten esku (8 gizon eta 13 emakume).
  - Turismo-kalitatea kudeatzeko sistemei buruzko lantegiak: Agoizko Kanpondoa enpresa publikoko langileei bideratuta. Abenduan egin zen.

Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak turismoarekin lotura zuten 3 jardunalditan esku hartu zuen:

- Turismo Gastronomikoari buruzko Nazioarteko 3. Kongresua (Baluarte, 2019ko otsaila).
- Hizkuntza-turismoari eta turistek euskararekiko izan dezaketen interesari buruzko biltzarra Zumaian (Gipuzkoa), 2019ko maiatzean.
- Jardunaldi parte-hartzailea Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuaren Turismoko Prestakuntza Planaren diseinuan (Iruñea, 2019ko ekaina).

### **LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK.**

Atal honetan Cederna Garalur Elkarteak hainbat laguntza eta dirulaguntza deialdirekin lotuta egin dituen jarduerak sartzen dira. Deialdi horietatik gehienak Nafarroako Gobernuak kudeatzen ditu, nahiz eta badiren nazio-mailako deialdi batzuk, IDAEn laguntzak kasu.

Elkarteak ondorengo eginkizunak betetzen ditu eskuarki: erakunde publikoei zein pribatuei laguntzetarako deialdiak posta elektronikoz, whatsapppe edo eskualdeko blogen bidez (Zangozako Agentziaren kasua, esaterako) zabaldu; proiektu zehatzak bateratzeko deialdiak aztertu; oroitidazki baloratuak prestatu.

Jarraian, laguntzetako batzuk aipatzen dira, hedapen-ekintzetan eta aholkularitza- edo izapidetze-ekintzetan banatuta:

- Zabalpenerako ekintzak:
  - Merkataritza Elkarateak sustatzeko eta kudeatzeko deialdia, 2019.
  - Txikizkako merkataritza-enpresak diruz laguntzeko deialdia 2019, lehiakortasuna hobetzeko eta merkataritzan ekintzaitza sustatzeko.
  - Baliabide turistikoak toki-erakundeetara egokitzeko deialdia, 2019.
  - Industria-arloko ETEei laguntzeko deialdia, 2019.
  - Nekazaritzako elikagaien industrian inbertsioak egiteko laguntzak, 2019.
  - Turismo-garapeneko eta -marketineko dirulaguntzak turismo-elkarteentzat, tokiko erakundeentzat eta partzuergoentzat, 2019.
- Aholkularitza eta izapidetze telematikoak: oroitidazkiak idatzi eta espedienteak aurkeztu eta kudeatu:
  - Nekazaritzako elikagaien industrian inbertsioak egiteko laguntzak, 2019.
  - Turismo-arloko ETEentzako eta turismo-marketinentzako laguntzen deialdia, 2019. Nekazaritzako elikagaien industrian inbertsioak egiteko laguntzak, 2019. NAO, 206 zk., urriaren 25ekoa
  - Deialdia: "Enpresentzako hasierako gastuetarako laguntzak, 2019"
  - Merkataritza-taldeak sustatzeko eta kudeatzeko dirulaguntza, 2019.
  - Landetxeak, aterpetxeak eta turismo-apartamentuak ireki.
  - Industriari emandako laguntzak justifikatu, 2019.
  - Eskulangintzako enpresen erregistroa.
  - Merkataritzako federazioen eta elkarteen estatutuak erregistratu: "Baztan-Bidasoa" eskulangileen elkarteak; "Denok Bat" Federazioa; "Doneztebarrak", "Bertan Baztan" dendarien elkarteak; "Lesakako Zerbitzuak"; "Larun Haizpe".
  - Lizitazio telematikoak: Nafarroako Gobernuaren lizitazioa, Nafarroako Naturaguneen webgunerako bideoak kontratatzeke, eta Lesakako Udalak sustatutako lizitazioa, 0-3 urte bitarteko zentroko aisialdiko monitorea kontratatzeke.

### **LARRAUNGO UDALA. DINAMIZAZIO EKINTZAK.**

Cederna Garalur Elkarteak lankidetzan dihardu Larraungo Udalarekin herritarren partaidetzarako ekintza batean eta herriko ondareari balioa emateko beste batean.

- Gorririko gaztelua berreskuratu. Malkorraundi mendian dago, eta eskualdearen zaintzarako eta kontrolerako leku estrategikoa izan zen. Gaur egun, udala hainbat aukera aztertzen ari da boluntarioritza bitartez ingurua garbitzeko, eta inguruari balioa emateko.
- Kontzejuen batzordea. Garapen Agentziaren proposamen bat da, demokrazia parte-hartzailean oinarritutako batzorde tekniko bat osatzeko. Gaur egun, batzorde horren funtzionamendua, parte hartzeko dinamikak, batzordea osatuko dutenen profila eta lantaldeak aztertzen ari gara.

## **ESPAINIAN ENPLEGUAREN ETA AUTOENPLEGUAREN BITARTEZ DESPOPULAZIOAREN AURKA BORROKATZEKO LAGUNTZAK: 1234/2018 ERREGE DEKRETUA.**

2018ko urrian, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak 1234/2018 Errege Dekretua onartu zuen. Dekretuak 5.000 biztanletik beherako toki-erakundeei laguntzak ematea arautu zuen, enplegua, autoenplegua eta ekintzaitza kolektiboa susta zitzaten, despopulazioaren aurka borrokatzeke bitarteko gisa.

Deialdiaren xehetasunak azaltzeko, 2019ko otsailean informazio-bilera bat antolatu zen. NUKFk, FEMPeK eta Ministerioak antolatuta, Cederna Garalur Elkarteko hainbat garapen-eragilek bileran parte hartu zuten, horretan interesa zuten hainbat tokiko ordezkarekin batera.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkartea arduratu zen jardunaldiaren deialdia Nafarroako Mendialdeko toki erakundeei zabaltzeaz, eta Errege Dekretuaren xehetasunak, laguntzak eskatzeko jarraitu beharreko izapideak, dokumentazioa eta aurkezteko bitartekoak agiri batean azaldu zituen.

### **EKAIKO ZERRATEGIAREN AUZOA. PLAN ZUZENDARIA.**

2019an, Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamenduko Departamentuko Paisaiaren Atalak Plan Zuzendari bat enkargatu zuen ingurune horretarako. Planteamendu estrategikoa da, eta barne hartzen ditu: instalazioen egoeraren azterketa eta diagnostikoa; zaindu beharreko balioak identifikatzea; aplikatu daitezkeen legeria; jarduketara-ardatzak eta lehentasunak biltzen dituen Ekintza Plana; eta bideragarritasunari buruzko azterketa ekonomikoa.

Cederna Garalur Elkartek azterlan horren lanketan eta finantziario-iturriak bilatzen lagundu zuen.

### **BICIMUGI (EUROVELO III)**

2019an, 'Bicimugi' proiektua onartu zen, Europar Batasuneko EGEF - Eskualde Garapeneko Europako Funtzak Interreg POCTEFA VA mugaz gaindiko lankidetzaren programaren bitartez batera finantzatua. Helburua mugikortasun jasangarriko bizikletentzako ibilbide bat garatzea da, Eurovelo 3 ibilbidearekin bat eginda; "Erromesaldien ibilbidea" ere deitua.

Proiektuaren bazkide onuradunak Nasuvinsa eta European Cyclists' Federation dira, eta Cederna Garalur Elkartea Orbaizeta, Luzaide, Orreaga, Auritz, Erroibar, Artzibar, Longida eta Agoizko udalekin, eta Orreagako kolegio-eliza eta Arantzadi Zientzia Elkartearekin batera elkartekide dira.

Proiektuak 4 milioi euro inguruko kostua du guztira, eta 2020-2022 bitartean gauzatuko da. Lanek tartea egokituko dute Orbaizetako Arma Olatik abiatuta, Auritz eta Aurizberrin barrena igaroko dira eta Artzibar haranetik jaitziko da, Longidara eta Agoitzera iritsi arte. Azken tarte hori Pirinioetako erromatar galtzadatik hurbil dago. Agoiztik, ibilbideak Iratiko bide naturalarekin izanen du lotura Iruñera iritsi arte, azkenik Done Jakue Bideekin lotuz.

Pirinioetako eta Pirinioaurreko arroetako eremurako, proiektu hori estrategikoa da; izan ere, lehendik martxan dauden beste ibilbide batzuk balioesten eta komunikatzen ditu, hala nola Donejakue bidea, Pirinioetako Erromatar Galtzada eta Iratiko Natura Bidea berreskuratzea.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak proiektua, elkartutako toki-erakundeen hautagai-zerrena, eta kudeaketa-, hedapen- eta sentsibilizazio-ildo nagusiak definitzeko lan-mahaietan parte hartu du.

### **ERRONKARI-ZARAITZUKO ETA ZANGOZERRIKO ESKUALDE-BLOGAK.**

Zangozerriko Garapen Agentziak eskualdeko hiru blog kudeatzen eta suspertzen ditu, Zangozerriar buruzkoak, Mendialde Behereari buruzko informazio orokorrekoak eta Kultura eta Ondareari buruzko berariazko blog bat. Blogak aldizka eguneratzen dira, eta bertan jasotzen diren berriek laguntzak eta dirulaguntzak, eskualdeko jardunaldiak eta ekitaldiak, berriak, ikastaroak eta bestelakoak jasotzen dituzte.

Blog horien kudeaketak berrikuntzak bilatzea, horiek sailkatzea eta hedabide batean edo gehiagotan argitaratzea, berrikuntzak bilatzea eta sailkatzea eta blogean argitaratzea dakar. Ondorengo URLetan kontsulta daitezke:

<http://sangesaylabajamontana.blogspot.com/>,

<https://patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/>, eta

<https://interesanteparasangesaybajamontana.blogspot.com/> .

### **PIRINIOETAKO ERROMATAR GALTZADA**

Aranzadi Zientzia Elkartea buru duen proiektua da, Agoitz, Longida, Artzi, Erro, Auritz, Orreaga eta Luzaideko udalekin lankidetzan, antzinako galtzada erromatar bat berreskuratzeke eta turismo-ibilbide bihurtzeko.

2019an, Aranzadirekin lankidetzan jardun dugu, galtzada horren proiektu arkeologikoari eta Aurizko Iturissako antzinako kokagune erromatarraren hondakinei balioa emateko eta horiek sustatzeko.

### **IRATIKO NATURA BIDEA**

Iratiko Natura Bidea 43,9 Km-ko korridore berdea da, Nafarroako Pirinioaurrea Zangozatik Uztarrozera (Ledean, Irunberrin, Urraulbeitin, Agoitzen, Longidan, Urrotz Hirian eta Lizoainibar-Arriasgoitin barrena) zeharkatzen dituen. Proiektuaren helburua Iratiko garai bateko trenbidearen trazatua berreskuratzea da, eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako natura-bide bihurtzea.

Proiektua Trantsizio Ekologikorako Ministerioak behin betiko onartu zain dago.

Cederna Garalur Elkartea proiektuaren sustatzaile nagusietako bat izan da, eta aktiboki parte hartzen du proiektuaren kudeaketan. 2019an ondorengo ildoak landu dira:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (CHE) baimena proiektua gauzatzeko. 2019ko maiatzean iritsi zen onespena, eta 36 hileko gauzatze-epea dauka.
- Arga ibai-parkearekin lotzeko proiektuaren jarraipena. Urbi ibairen Uharte-Uztarroze tartea: 2019ko irailean bilera bat egin zen Eguesibarko Udalarekin, mankomunitatearen aurrekontuei zuzenketa bat gehitzeko, proiektua eta desjabetzeak gauzatzeko aldera.
- Orozko Udalak Iratiko trenbide zaharra beste toki-erakunde batzuei lagatzeari buruz egindako proposamena zabaldu, tren zaharra udalerrietatik igarotzen zelako lekukotza emateko.

### **'JOSENEA', GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ZENTROA.**

Josenea ISZ - Integrazio Soziolaboraleko Zentroa duela 20 urte Irunberrin jaio zen proiektua izan zen, Cederna Garalur Elkartearen laguntzarekin. Orduz geroztik, bi erakundeek lankidetzan jardun dute elkarrekin. Josenea Cederna Garalur Elkarteko bazkidea eta zuzendaritza-batzordeko kidea izan da 2014-2019 aldian.

Elkarte soziolaboral honen lanak bi sari jaso zituen 2019an; batetik, Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea jaso zuen, Erkidegoaren garapenari, proiektzioari eta ospari egindako ekarpenagatik, eta, bestetik, Landa Garapeneko Espainiako Sareak (REDR) Europako Landa Jarduera Egokien eredutzat jo zuen.

Cederna Garalur Elkarreak Josenearen hautagaitza aurkeztu zuen REDRen sarietara. Horrez gain, bi erakundeok Irati eta Zangozako mankomunitateetatik datozen hondakinentzako biokonposta egiteko instalazio bat abian jartzeko lan egin dute elkarrekin.

### **"ORREAGAKO GATAZKA" ERAKUSKETA-ZENTROA ETA TURISMO-INFORMAZIORAKO GUNEA LUZUIDEN.**

2019ko maiatzean ireki zen zentro hori, eta horren inbertsioak 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren bidez kofinantzatu ziren.

Ondoren, Cederna Garalur Elkartearen Eskualdeko Garapen Agentziak proiektuaren jarraipena egin zuen, eta espazioaren kudeaketaz arduratuko den pertsona hautatzeko prozesuan parte hartu zuen. Gainera, erakusketa-zentroa sustatzen lagundu zuen, eta proiektuaren sustapen-bideo bat egiten parte hartu zuen, bai eta aurkezpen-prentsaurrekoan eta ireki ondoren programatutako jardueren hedapenean ere.

### **LANKIDETZA AINEkin (NAFARROAKO INDUSTRIAREN ELKARTEA).**

2019an Cederna Garalur Elkarreak hiru ekintzetan jardun zuen lankidetzan AINEkin:

- **SharEEN proiektua:** proiektu pilotua, Europako Batzordeak finantzatua, European elkarlaneko ekonomia areagotzea bultzatzeko estrategiaren barruan, ekonomia zirkularrerako estrategiaranzko bidean. Proiektuaren helburuen artean, elkarlaneko ekonomiako ekimenak identifikatzea eta babestea nabarmentzen dira, mentoring-, coaching- eta prestakuntza-zerbitzuen bidez. Cederna Garalur Elkarreak ekimena Mendialdeko enpresen artean zabaltzen lagundu du, eta Mendialdeko bi enpresa

proposatu ditu; horietako bat (Movel Mugikortasun Elektrikoko Plataforma) mentorizazio-programarako hautatua izan da. Aurrekoaz gain, proiektuak jasotzen duen prestakuntza-ikastaroa egin da online.

- **Europa hurbilago:** programa hau AINen eta Nafarroako Unibertsitateko *Enterprise Europe Network (EEN)* erakundeak sustatzen du, Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzarekin lankidetzan. Berriazko prestakuntza jasotzen du, Europar Batasuneko I+G arloko laguntzen deialdietan ETEen proposamenak hobetzeko helburuarekin, eta erakunde ofizialak (Europako Batzordea) bisitatzea eta Belgikako erakundeekin topaketak egitea aurreikusten ditu. Cederna Garalur Elkarteak 2019ko 2 deialdiak zabaltzen lagundu du, eta informazio-liburuxka bat argitaratu du euskaraz eta gaztelaniaz.

### **ESKOLA-JANGELA OSASUNGARRIAK.**

INTIAk jantoki kolektiboetan produktu freskoaren, sasoikoaren, ekologikoaren eta tokian tokikoaren kontsumoa sustatzeko abian jarritako programa da, eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak jasotzen ditu, baita unitate didaktiko bat ere.

Halaber, INTIA lankidetzan ari da janGELArekin (Nafarroako hainbat guraso-elkarteren elkarte) hitzaldiak antolatzeke; horietan, tokiko elikadura-ereduak eskola-jantokian eta etxean dituen bideragarritasuna eta potentziala azaltzen dira.

Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak INTIArekin koordinatu da Agoitzen egin den elikadura osasungarriari buruzko jardunaldia zabaltzeko eta janGELA plataforma Pirinioetako guraso-elkarteei aurkezteko. Gainera, JanGelak Zubiriko eta Erronkariko ikastetxeetan tokiko ekoizpenari lotutako elikadura-ereduaren balioei buruz antolatu zuen hitzaldia zabaltzen lagundu dugu, errezeta osasungarri eta jasangarriekin.

### **ALTSASUKO UDALEKO GARAPEN BATZORDEA.**

Cederna Garalur Elkarteak udal horretako garapen-batzordeko kidea da. Batzordearen eginkizunak dira: deialdiak bidaltzea, aktak eta txostenak egitea, txosten teknikoak prestatzea, ordenantza-proposamenak egitea eta proiektuetarako finantzaketa bilatzea, Batzordearen bileretan parte hartzeaz gain.

2019an Cederna Garalur Elkarteak batzorde horretatik ondorengo ekimenetan lan egin zuen:

- Altsasuko Udalaren eta ADE merkatarien elkartearen (*Asociación Dendaren Elkarte*) arteko hitzarmena berritu, Altsasuko IV. Merkataritza Azoka antolatzeke.
- IV. Merkataritza Azoka antolatu.
- Aurrekontua landu, genero-ikuspegiarekin.
- Ekintzailetzarako dirulaguntzak eta laguntzak, Sakanako Enplegu Taldearen barruan egiten diren ekintzetarako (ikus aurrerago).
- Ibarrea industrialdeko hondakinak biltzeko kolektorearen lizitazioa.
- "Kafe Konpondu" lantegiak antolatzeke laguntzak. Ekonomia zirkularrari buruzko lantegiak dira, eta Batuta Sakanarekin lankidetzan egiten dira. Herritar guztiei



zuzenduta daude eta pertsonen bizikletak, altzariak eta bestelako objektuak konpontzen ikas dezaten dute helburu, horien bizitza baliagarria luzatze aldera.

- Hirugarren adinekoei bideratutako sare sozialei buruzko lantegiak antolatzeko laguntzak.

### **ALTSASUKO UDALEKO MENDI BATZORDEA.**

Cederna Garalur Elkartea udal horretako mendi-batzordeko kidea da. Bere eginkizuna batzordeak sustatutako ekintzetan laguntzea da. Batzorde horren barruan, Cederna Garalur Elkarteko Garapen Agentek idazkari-lanak egiten ditu, eta lan horien barnean: deialdiak bidali, aktak eta txostenak prestatu, ekitaldiak antolatu eta laguntzak bilatu, eta laguntzak eskatzeko dokumentazioa prestatzen laguntzen du.

2019an, Cederna Garalur Elkartek honako ekintzen lan egin du:

- Altsasuko urriko azoka, eta azokarako dirulaguntza eskatu.
  - Azokarako standak eskuratzeko izapideak
- Etxeetarako egur-sortak:
  - Egur-sortak esleitzea eskatu: eskaerak bildu, zozketa prestatu (hautagaitzen zerrenda, zenbakiak banatu).
  - Egur-sortak esleitu.
- Baso-lanei laguntza eman: laguntzak eskatu, esleitu eta 2019ko aldia justifikatu.
- Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak:
  - Laguntzak eskatu, esleitu eta 2019ko proiektuak justifikatu.
  - 2020. urterako laguntzak eskatu.

### **BERAKO LEHEN SEKTOREAREN BATZORDEA.**

Udal ordezkariak eta ekoizleak eta beste lurralde-eragile batzuek (Cederna Garalur, esaterako) osatutako lan-batzordea da. Batzordearen helburua da Berako eta Ibarreko udalerrian lehen sektorea biziberritzea. Batzordea hilabete bakoitzeko azken ostegunean batzartzen da.

2019an ekintza nagusia ekoizleak hilabetero egiten duten azokari jarraipena ematea izan zen.

### **TURISMO KONTSEILUA.**

Turismo Zuzendaritza Nagusiak koordinatutako lan-mahaia da, eta bertan Nafarroako turismo-sektorea dinamizatzen diharduten eragile guztiek parte hartzen dute; besteak beste, enpresa-elkarteak, tokiko ekintza-taldeak edo turismo-partzuergoak.

Cederna Garalur Elkartek, Turismo Kontseiluko kide den aldetik, erakunde horrek 2019ko ekainean eta azaroan egin zituen bileretan parte hartu zuen.

### **PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA.**

Plazaola Partzuergo turistikoa Mendialde eskualdeko dinamizazio turistikoa esku hartzen duten eragile guztiek osatzen dute, eta Plazaolako Natura Bidea kudeatzen du.

Cederna Garalur Elkarteak, partzuergoaren kide den aldetik, administrazio-kontseiluaren bileretan parte hartzen du.

### **TURISMO-OSTATUAK KUDEATZEKO SISTEMA BAT SORTU BAZTANGO 'APOPILO' ELKARTEARENTZAT**

Apopilo Baztango turismo-ostatuen elkarte da, eta Arras Baztan Fundazioko kide da, lurralde horren garapen sozioekonomikoa lurraldearen balio identifikatzaileen bidez lantzen duena.

2019ko ekainean, Apopilok Cederna Garalur Elkartearen aholkularitza eskatu zuen turismo-ostatuen kalitatea kudeatzeko plan bat diseinatze aldera. Ordudanik, bi erakundeok plan horren diseinuan lan egin dugu, eta 2020ko urtarrilean bukatuko da 2020ko otsaila eta martxo bitartean, Cederna Garalur Elkarteak Apopilo Elkarteko establezimenduei aurkeztuko die plana, prestakuntza-saioen bidez, eta, azkenik, 2020ko udaberrian abian jarriko da kudeaketa-sistemaren ezarpena establezimenduetan. 2020ko udaberrian ezartzea aurreikusi da, Cederna Garalur Elkarteak Apopilo Elkarteko establezimenduei emango dien prestakuntzaren ondoren.

### **CONVIVIAM YESA 2019: ADINEKO PERTSONEKIN LAGUNKOIAK IZANEN DIREN HIRIAK ETA ERKIDEGOAK**

Esako Udalak bultzatutako bizikidetza-programa da, Nazio Batuen Erakundearen "Hiri eta Erkidego Lagunkoiak" programara atxikita dagoelako.

Proiektu hori Esako Udalak, Nafarroako Gobernuko Tokiko Agenda 21ek eta Geoalcali Fundazioak finantzatzen dute.

2019an hiru jarduera-ardatz biltzen dituen esku-hartze programa bat planteatu da: Bizitza Osasungarrirako Programa, Sormen eta Irudimena Programa eta Berdintasun Programa. Tokiko biztanleak jarduketan diseinuan, erabakiak hartzean eta proposamenak gauzatzean inplikatzeke metodologia parte-hartzaile bat erabiliz, 20 ekintza garatu dira, eta horietan 1.002 pertsonak parte hartu dute.

Cederna Garalur Elkarteak ekintzak koordinatzeaz, horiek hedatzeaz eta parte hartzera animatzeaz arduratu da Zangozerriko Garapen Agentziaren bitartez:

- Koordinazio orokorra: ekintzak planifikatu, aurreikuspen- eta gauzatze-oroitidazkiak aurkeztu, justifikatu, bileren ikuskapena, bertaratzeak kontrolatu.
- Zabalpena: kartelen diseinua, prentsa-oharrak landu.

### **CEDERNA GARALURREK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK.**

Epigrafe honetan, Cederna Garalur Elkarteak beste erakunde batzuekin lankidetzan zuzenean kudeatutako hiru ikastaroetarako egindako lanak azaltzen dira; erakunde horiek dira, besteak beste, NEZ-Nafar Lansare, Plazola Partzuergo turistikoa eta Nafarroako Ganbera.

Horrela, Cederna Garalur Elkarateak honako jarduera hauek antolatu zituen:

- Prestakuntza-proiektu bereziak: NEZ-Nafar Lansareekin eta Plazaola Partzuergo Turistikoarekin lankidetzan:
  - Sare sozialak turismora aplikatuta. 24 ordu Martxo-apirila. Lekunberri.
  - Ingeles profesionala turismorako. 20 ordu Apirila. Lekunberri.
  - Frantsez profesionala turismorako. 20 ordu Maiatz-ekaina. Leitza.
  - (Martxo-apirila).

### **BESTE ERAKUNDE BATZUEN IKASTAROAK ANTOLATZEKO LANKIDETZA**

Atal honetan, Cederna Garalur Elkarateak zuzenean antolatu ez zituen prestakuntza-ikastaroak biltzen ditugu. Elkarateak ikastaro horietan lagundu zuen deialdian, antolaketan, hedapenean edo asistentzian.

- Ikastaroen hedapen eksklusiboa:
  - Modulu soziosanitarioko prestakuntza. Antolatzailea: NEZ-Nafar Lansarek Agoitzen duen agentzia. 2019ko udaberria: ikastaroari buruzko informazioa bidali zitzaien 2019an interesa zuten pertsoneri eta 2018an Auritzen egindako informazio-hitzaldira joan zirenei.
  - Arbedolondoak eta aranondoak inauteko ikastaroa. Zangoza. Antolatzailea: Ardaska Elkartea. 2019ko urtarrila.
  - Apainketarako inausketako ikastaro praktikoa. Zangoza. Antolatzailea: Ardaska Elkartea. 2019ko otsaila.
  - Elikagaien higieneari buruzko oinarritzko ikastaroa. Zangoza. Antolatzailea: Gurutze Gorria - Zangoza. 2019ko martxoa.
  - Industriadako peoi balioaniztuna izateko ikastaroa. Oibar. Antolatzailea: Nafar lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua. 2019ko maiatza.
  - Lehen laguntzetako oinarritzko teknikak. Zangoza. Antolatzailea: Gurutze Gorria - Zangoza. 2019ko martxoa.
  - Industriadako peoi balioaniztuna izateko ikastaroa. Oibar. Antolatzailea: Nafar lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua. 2019ko azaroa.
- Prestakuntza-premiak antzeman.
  - Orga jasotzaile frontala gidatu, peoi baliokidearen moduluaren barruan. Agoizko NEZ-Nafar Lansare Enplegu Agentziarekin koordinatu, enpresen, toki-erakundeen eta langileen eskaria helarazteko. Eskariak guztira: 15.
- Laguntza ikastaroak antolatzen:
  - hiru hitzaldi: "Prestatu zeure burua hodeian lan egiteko: Office 365". *Club de Marketing de Navarra* erakundeak emana. Altsasu, Irunberri eta Doneztebe. Urriaren 2a eta 9a, azaroaren 9a, hurrenez hurren.
  - Bi ikastaro: "Industriadako peoi balioaniztuna". 80 ordu Agefor-ek emanak, eta NEZ-Nafar Lansarek finantzatua. Cederna Garalur Elkarateak Alkaiagan (Lesaka) duen zerbitzu-zentroa. Egunak: 2019ko apirila, urria. (Apirila, urria). 30 lagun bertaratu ziren.
  - Hiru ikastaro: "Garraiorako etengabeko prestakuntza: Gaitasun Profesionalaren Agiria - GPA". 35 ordu. Anet-ek emanak. Cederna Garalur

Elkarteak Alkaiagan (Lesaka) duen zerbitzu-zentroa. Egunak: 2019ko martxoa, ekaina eta azaroa. 60 lagun bertaratu ziren.

- Ikastaro bat: "Laneko arriskuei buruzko prestakuntza enpresei". 20 ordu. Formalia Salud-ek emana. Cederna Garalur Elkarteak Alkaiagan (Lesaka) duen zerbitzu-zentroa. 2019ko abendua. 10 pertsona (Abendua)
- Nekazaritzako elikagaien kalitateari buruzko bi prestakuntza-ikastaro. 24 ordu. Martiko enpresa pribatuak bere langileentzat emana. Cederna Garalur Elkarteak Alkaiagan (Lesaka) duen zerbitzu-zentroa. 2019ko otsaila eta abendua.
- Ikastaro bat: "Facebook, Instagram sare sozialak". 4 ordu. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Leitzako Dendarien Elkartean emana. Leitza. Azaroa. 26 lagun bertaratu ziren.
- Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa Erronkari Ibarrean. 12 ordu. CPAEN-NNEK-k emana. Maiatza.
- Barazki-kontserbei buruzko lantegia. 4 ordu. Erronkariko Udalak emana. Iraila.
- Kontserbak egiteko ikastaroa. 4 ordu. Erronkariko eskolak sustatua. Iraila.
- Lurzoruaren erabilera, ongarritzea eta aniztasuna lantzea nekazaritzan. Antolatzailea: CPAEN-NNEK. Oibar. 2019ko martxo-apirila.
- Olibondoak inautesteko ikastaro praktikoak. Antolatzailea: Ardaska Elkartea. Zangoza. 2019ko apirila.
- Txikizkako merkatarien lehiakortasuna hobetzeko lantegiak. Antolatzailea: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Zangoza. 2019ko ekaina.
- Lidergo partekatua - Konpromisoa. Antolatzailea: ANEL (Nafarroako Lan Enpresen Elkartea. Zangoza. 2019ko urria.
- Ekintzailletza gizarte-ekonomiaren arloan. Antolatzailea: ANEL (Nafarroako Lan Enpresen Elkartea. Zangoza. 2019ko urria.
- Prestakuntza eta Enplegu Programa Integratuak (PEPI) Zangozerrian. Antolatzailea: POSTHAC Elkartea (enpleguaren aldeko gizarte-erakundea). 2019ko azaroa.
- Eraldaketa digitalari buruzko lantegia. Antolatzailea: Artaiz Informatika. 2019ko urria.

### **EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA ZANGOZAN**

Cederna Garalur Elkarteak Zangozan duen Agentziak Udalak eta beste hainbat herritar taldek Emakumearen Egunaren harira antolatutako ekitaldiak zabaltzen ditu. Hala ere, bere inplikaziorik garrantzitsuen Herri Kontzentrazioarekin da; horretan, Zangozako Udalak, Etxekoandreen Elkarteak, Sierra de Leyreko BHIk, Zangozako Ikastolak eta Gurutze Gorriak esku hartzen dute. Ekitaldi horretarako, Agentzia ekitaldiaren antolaketan, parte hartzen duten kolektibo guztien koordinazioan eta ekitaldiaren zabalpenean laguntzen du.

### **IRUNBERRIKO ARROILEN INTERPRETAZIO ZENTROA**

Beste urte batzuetan bezala, 2019an Cederna Garalur Elkarteak Irunberriko Arroilen Interpretazio Zentroaren jarduerak kudeatzen eta koordinatzen lagundu zuen; besteak beste,

turismo-agentzia, ingurumen-sentsibilizazioko jardunaldiak edo Turismo Informazioko Gunearen kudeaketa eta koordinazioa.

### **"IRATI SA"ren ERAKUSKETA-GUNEA.**

Gune hori Agoizko Udaletxean dago, eta helburua du El Irati SA enpresaren eta Ekai zerrategiaren industria-ondarea ezagutzera ematea eta haren balioa nabarmentzea; izan ere, XX. mendearen lehen erdialdeko industrializazioaren adierazlerik onenetakoa dira Nafarroan. Zentroak "El Irati SA" trenari eta enpresari buruzko azalpen-panelak (gaztelaniaz eta euskaraz), argazki-erakusketa bat, erreportaje eta filmen emanaldiak, eta XX. mendearen lehen erdian enpresaren nabeak erreproduzitzen dituen neurri handiko maketa bat ditu.

Proiektua Agoizko Udalak aurkeztu zuen 2014-2020 Landa Garapenerako Programako laguntzen deialdira.

Bestalde, Cederna Garalur Elkartearen Eskualdeko Garapen Agentziak udalari laguntza eman dio proiektua kudeatzen, jarraipena egiten eta gauzatzen, baita eskualdeko hedabideen artean proiektua sustatzen ere.

### **KONTAGAILU BERDEAK.**

Kontagailuak Nafarroako Gobernuak Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak sustatutako programa pilotua da. Xedea du Foru Komunitateko kirol- eta aisia-ibilbide nagusietara sartzeko eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua zenbatzea, baita naturagune esanguratsuetara joaten direnen kopurua ere; besteak beste, Xorroxin ur-jauzia (Erratzu, Baztan), eta Urederra iturburuz (Urbasa mendilerroa).

Horretarako, sentsoredun gailuak jarri dira, erabiltzaile-mota (ibiltaria, bizikleta edo ibilgailu motoduna) eta horien noranzkoa hautemateko helburuarekin. Hainbat kontagailu jarri dira zenbait bidetan. Nafarroako Mendialdean 7 kontagailu daude: Doneztebe (Bidasoaren Natura Bidea); Xorroxin ur-jauzia; Lekunberri (Plazolaren Natura Bidea); Aralar mendilerroa; Aurizberri eta Elo (Donejakue bidea); Irunberri (Iratiren Natura Bidea). Denbora errealean hartutako datuak eta metatutako adierazleak tresna informatiko baten bidez daude eskuragarri linean.

2018. urtearen amaieran, Nafarroako Gobernuak tresna eta horren erabilera ezagutarazteko antolatu zituen informazio-saioetan izan zen Cederna Garalur. Ondoren, 2019an, Cederna Garalur Elkarteak Elo, Irunberri, Aurizberri, Xorroxin ur-jauzi eta Doneztebeko kontagailuetako erabilera-adierazleak jaso ditu hileroko.

### **TXISTORRAREN EGUNA ARBIZUN**

Arbizuk urtero ospatzen du "Txistorraren Eguna"; herri horretako betiko produktua.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak erakunde horrekin lankidetzan jardun zuen ekitaldi hori antolatzen, eta ekoizleen eta eskulangileen azokarako izen-ematea kudeatu eta koordinatu zuen: parte-hartzaileen erregistroa eguneratu, dokumentazioa kudeatu eta ordainketak kontrolatu zituen.

### **ITOIZKO URTEGIKO ATZEALDEKO UHARKA**

Cederna Garalur Elkarteak Itoizko Urtegiko atzealdeko uharken kudeaketan parte hartzen du. Uharka horiek Artzibar eta Orotz-Betelu udalerrien artean daude. Kudeaketa bileretara joanez eta zerbitzuak hobetzeko eta egokitzeko ekimenen jarraipena eginez gauzatzen du.

2019an, honako lan hauek egin ziren:

- Urtegiaren inguruz inguruko turismo-pasealekuaren inguruko erabilera-arauei eta informazioari buruzko informazio-panelak jarri.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) bi bainu-eremu eta oinezkoentzako pasealeku bat gaitu ditu dikearen gaintik Nagoreko Andre Maria basilizaraino.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkarteak aisialdirako guneak hobetzeko proiektuan laguntzen ari da; besteak beste, bainu guneetako ontziak iragazgaitzea, Nagore eta Angordoi arteko pasealekuko horma eraiki, Angordoi-Artziko sarbideak eta Artziko ibai-hondartzako azpiegiturak. Onartuz gero, 2021ean gauzatuko dira lanak.

### **OAE. ZANGOZERRIKO ONDAREARI ARRETA EGITEKO ESKUALDEKO ESTRATEGIA**

Sigla horien pean biltzen dira Zangozerrian sortzen diren ekimen guztiak; horiek inguruko udalerrien historia-, kultura- eta natura-ondare aberastasuna darabiltzate eskualdeko ekonomia-garapen iraunkorra bultzatzeko helburuarekin.

OAEren ezaugarrietako bat da jarduketak tokiko eragileen artean sortzen direla, eta bilakaera modu parte-hartzailean dutela.

Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak Zangozerrian duen garapen-agentziak banakako ekintzak biltzen ditu estrategia globalaren barnean. Elkarteak koordinazio orokorraz arduratzen da, eta, kasuen arabera, animazioaz, hedapenez, antolaketaz, eskualdeko agintariekin hitz egiteaz, ordezkartaz edo finantzaketa bilatzeaz, edo ekintza partikularrak deialdietara aurkezteaz.

Horrela, 2019an Cederna Garalur Elkartearen garapen-agentziak honako ekimenetan esku hartu zuen:

#### **Landa Garapenerako Programaren bidez finantzatutako proiektuak.**

Aipatu dugun moduan, epigrafe hau antolaketa, suspertze eta zabaltzearen harira egindako lanei buruzkoa da. Ez dira sartzen, hortaz, proiektuak gauzatzearen inguruko kudeaketa eta ikuskapena.

- San Zoilo baserria egokitu (Kaseda).
- Arangoizko gaztelua egokitu (Zangoza).
- Oibarko Antsa andereari buruzko liburuaren aurkezpena.
- Eslabako Santa Criz aztarnategia: hondarren katalogoa, aztarnategiari buruzko filma, proiektua eskualdeko agintariei aurkeztu.
- Esa-Leireko Monasterioko bidezidorra.
- Agezako eihera.
- Donejakue bideko hesia.

### **Musika-, antzerki-, arte- eta literatura-ekitaldiak.**

- Laguntza ondoren aipatzen diren ekitaldien antolakuntzan eta zabalpenean:
- Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Xabierren emandako kontzertua.
- "Musicaibar": antzerki-lana Oibarren.
- Txirula-ikastaroa.
- "Irati trenaren azken-aurreko bidaia" literatura-lehiaketa .
- Kasedako "Napoles Kapitaina" aire zabaleko pintura-lehiaketa.

### **Tokiko monumentu-ondareari balioa eman:**

- Ondarearen Europako jardunaldiak, 2019: jarduketak koordinatu.
- San Zoilo baseliza dinamizatu (Kaseda).
- Ledeako erromatar hiria.
- Zangozako potxaren VII. gorazarrea
- Oibarko Erdi Aroko azoka.
- Aragoiko Donejakue bideari balioa nabarmendu.

### **Proiektu europarrak.**

- Nobel Hirien Europako Sarea.

### **Bestelako lankidetzak eta jarduketak.**

- Zangozako Udalarekin lankidetzak Eslaba eta Kasedari buruzko hitzaldiak antolatzen.
- Lankidetzak El Irati Elkartarekin.
- Lankidetzak Geocali Fundazioarekin.
- NUPekin hartu-emanak eskualdean udako ikastaro bat antolatzeko.

### **'EREMUA', ESTERIBARKO BTT TRAIL GUNEA**

2018an jarri zen martxan gunea hori, Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programaren finantzaketarekin.

2019an, Cederna Garalur Elkarrekin Esteribarren duen garapen-agentziak lankidetzan jardun du BTT gunea sustatzen. Gainera, Jarduera Egokien Eskuliburua idazten eta gunearen kudeaketan lagundu du. Halaber, Esteribarko Udalaren, Zubilan sozietate publikoaren eta Eremua laguntza teknikoaren arteko koordinazio-bileretan parte hartu du, bidezidorren eta BTT gunearen kudeaketa jasagarriaz arduratuko den Napar Basoak Elkarrekin sortzeko.

### **NAFARROAKO PAISAIAREN ESTRATEGIA.**

Nafarroako Paisaiaren Estrategia Paisaiaren Europako Hitzarmenaren (PEH) translazio bat da, eta Nafarroan Lurralde Antolamenduko Planen (LAP) bidez garatu da. LAPen aurretiko lanetik abiatuta, Nafarroako Paisaiaren Estrategiaren helburua da paisaien katalogo bat egitea, eta lurraldean eragina izanen duten planek, programek eta esku-hartzeek hartu beharko lituzketen irizpideak eta neurriak ezartzea. Zeregin hori toki-erakundeei irekita dauden partaidetzasaien bidez gauzatzen ari da. Proiektua Lursarekin kudeatzen du.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak LAP1erako Paisaiaren Dokumentua berrikusten lagundu zuen, gizarte-ikuspegia kontuan hartuta. Horrez gain, "Paisaiaren gizarte-ikuspegia. Nahi dugun lurraldea" jardunaldian esku hartu genuen, urriaren hasieran Auritzen.

### **PIRINIOETAKO ESTRATEGIA**

2018an, Nafarroako Gobernuak Lursareari agindu zion "Pirinioetako estrategia" koordinatzeko, 2017an "Nafarroako Parlamentuan Pirinioak Balioesteko Ponentziaren" ondorioetatik sortutako proposamenak dinamizatzeko helburuarekin. Lau lantaldetan egituratutako Mahai horretan Pirinioen garapenean esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuak ere sartzen dira.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak enplegu-, turismo- eta abeltzaintza-mahaietan esku hartu zuen.

#### **Enplegu-, ekintzaitza-, industria- eta prestakuntza-mahaia.**

- Pirinioetan dagoen enplegu-eskariari eta -eskaintzari buruzko galdera-sorta. Cederna Garalur Elkarteak online inkesta bat zabaldu zuen Pirinioetako enplegu-eskaintzaren eta -eskariaren ezaugarriei buruzko informazioa lortzeko: eskaintza-motak, denborazkotasuna, eskatutako profilak eta eskatzaileen profila. Cederna Garalur Elkarteak informazioa posta elektronikoko, whatsapp, iragarki-kartel eta paper bidez zabaldu zuen udal-bulegoetan, eta herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin zien. Guztira 60 ekarpen jaso ziren.
- Pirinioetako enplegu-plataforma. Lursarearekin lankidetzan, hainbat proposamen balioetsi ziren Pirinioen berezitasunei irtenbideak emateko. 2019ko bigarren erdian, Pirinioetan lan-eskaintza eta -eskaria lotuko dituen online bidezko plataforma garatzeko proposamena landu zen. Agiri hori Lursareari bidali zitzaion berrikus zezan, eta une honetan finantziarioa bilatzen ari gara.

#### **Turismo-mahaia**

- 2019an, Cederna Garalur Elkarteak Pirinioetako toki-erakundeen arteko hitzarmen-eredu bat proposatu zuen, Cederna Garalur Elkarteak kudeatuko duen elkarte publiko bat sortzeko, inguru horretan turismoa koordinatu, sustatu eta zabaltzeko xedearekin. Proposamenak turismo-arloko teknikari bat kontratatzea jasotzen du. Beste zeregin batzuen artean, Cederna Garalur Elkarteak hitzarmenerako eta kuotak banatzeko eredu bat landu zuen, eta udalekin kontrastatu zuen hainbat lurralde-bileratan. Proposamen horri Pirinioetako udalerrien % 60 atxiki zitzaion; alegia, biztanleriaren % 70 ordezkatzen dutenak. Udal- eta autonomia erkidegoetako hauteskundeek eta udalbatzak aldatzeak ekimena 2020ra atzeratzea eragin dute.

### **PIRINIOAURREKO ARROETAN, ZANGOZERRIAN ETA NAFARROA ERDIALDEAN EMATEN DEN DESPOPULAZIOARI BURUZKO AZTERKETA**



Azterketa hori Lursareak (Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentzia) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako eta Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren mandatuz.

Azterketa horrek lau helburu nagusi ditu: eskualdeko herriak arian-arian abandonatzearen arrazoiak aztertzea; iraganean arrakastaz garatu diren eta biztanleria erakartzeko eta finkatzeko aukera eman dezaketen ekimenak eta proiektuak identifikatzea; ekintza berriak proposatzea; eta toki- eta eskualde-administrazioen eskumenekin zerikusia duten eta herritarrak finkatzea edo itzultzea eragozten duten oztopoak identifikatzea.

Azterketa lantzeko, elkarrizketak egin zaizkie eskualdeko toki-erakundeetako, enpresetako eta elkarteetako ordezkariari, baita partzuergoetako eta tokiko ekintza-taldeetako ordezkariari ere; ondoren, dokumentuaren lehen ondorioak kontrastatu dira haiekin.

Era berean, eskualde horietako gazteei ere parte hartzera gonbidatu zaie, inguruko institutuetan bi hitzaldiren eta saio parte-hartzailearen bidez.

Cederna Garalur Elkarteari dagokionez, Pirinioaurreko arroetako eta Zangozerriko toki-garapeneko agentziek parte hartu dute, hiru fasetan:

- Elkarrizketak adituei, lanketa eta diagnostiko fasean.
- Bilera parte-hartzaileak antolatu eta horietan parte hartu, agiriari egindako ekarpenak jasotzeko.
- Zangozan egin zen azken bilera antolatu, azterlana aurkezteko.
- Pirinioaurreko arroetan eta Zangozerrian despopulazioaren arazoa ezagutaraztea, Diario de Navarra egunkarian urrian argitaratutako gutun baten eta Cadena Ser irratian egindako elkarrizketa baten bidez.

### **EBREN POLITIKA, PROGRAMA ETA LAGUNTZEI BURUZKO HEDAPENA ETA INFORMAZIOA.**

Epigrafe honen barruan, hedapen-, informazio-, bazkideak bilatzeko edo Europako programa eta proiektuen jardunaldietan eta ekitaldietan parte hartzeko ekintzak biltzen dira. 2019an ondoren aipatzen diren eginkizunak bete dira:

- Zabalpena:
  - Europako deialdiak: POCTEFA eta SUDOE programetako deialdiak.
  - Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen deialdia.
  - Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) Plan Estrategikoa (ikus Pirinioetako Estrategia -PIE- epigrafea).
  - AINek eta Nafarroako Unibertsitateak antolatzen duten "Europa Hurbilago" programa zabaltzea, Europako EEN sareko kide den aldetik.
  - 'Interrail' laguntzak, Europar Batasuneko gazteentzat.
  - Europako Batzordearen WIFI4EU programaren deialdia, Interneten doako sarbide publikoko puntuak instalatzeko.
  - Norvegiako turismo-gidaria izateko eta lera-txakurrentzako 'Eures'en enplegu-eskaintza zabaltzea.
- Bileretara joatea:

- "Europa Horizontea" EBren I+G esparru-programa berriaren aurkezpena. Ekonomia-garapeneko ostirala. Martxoaren 1a. Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.
- Promobiomasse proiektuaren aurkezpena. Martxoaren 11. Antolatzailea: Nafarroako Gobernua eta Lursarea-Nasuvinsa.
- Koordinazioa eta lankidetzak:
  - "Europa herritarrekin" programari buruzko dokumentua landu Petilla de Aragoneko Udalarentzat, "Europako Nobel Hirien Sarea" proiektuaren barnean.
  - Europan egon daitezkeen enplegu-aukerei buruzko kontsultei erantzun.
  - Iruñean dagoen Teresiar Ikastetxeari laguntza eman, Europako Batzordeak sustatutako "Europako Eskola Enbaxadoreak" proiekturako; proiektu horren parte da ikastetxea: Europari eta Europako Parlamentuari buruzko material banaketa.

### **MAIATZEKO AZOKA, LAKUNTZA**

Urtero maiatzean Lakuntzan egiten den azoka. 2019an, Cederna Garalur Elkarteak ekitaldi hori koordinatzen lagundu zuen, eta ekoizleekin eta esku-langileekin harremanetan jarri zen.

### **DONEZTEBEKO UDABERRIKO AZOKA.**

Herri horretan udaberrian egiten den azoka. 2019an Cederna Garalur Elkarteak azokaren antolaketan eta logistikan parte hartu zuen, baita ahari-lehiaketara aurkeztutako buruen baremazioan ere.

### **ALTSASUKO URRIKO AZOKA.**

Urteko azken hiruhilekoan urtero Altsasun egiten den abeltzaintzako eta nekazaritzako elikagaien azoka. Cederna Garalur Elkarteak ekitaldiaren antolaketan eta ekoizleekiko harremanean eta koordinazioan laguntzen du, eta standen diseinua eta eraikitzea gainbegiratzen ditu. Zeregin hauetan parte hartu zuen:

- Koordinazio orokorra:
  - Ekoizle-postuen kontrola, gonbidapen-gutunen bidali, enpresa babesleak bilatu, postuen ordaintzen jarraipena eta kontrola, postuen zerrenda.
  - Standak eraiki eta diseinatu: enpresekin harremanetan jarri standak eraikitzeke, eta eraikitzearen jarraipena egin.
  - Koordinazio-bileretara joan.
- Altsasuko Udalari dirulaguntza-eskatu azoka antolatzeko:
  - Oroitidazkia eta erantsitako dokumentazioa prestatu eta izapideten jarraipena.
  -

### **TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN TURISMO LIBURUXKAK**

Nafarroako Gobernuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak Foru Komunitateko turismo-intereseko herrien turismo-baliabideak jasotzen dituzten liburuxkak argitaratzen ditu aldizka. Liburuxka horiek egiteko, toki-erakundeek laguntza jasotzen du. Cederna Garalur Elkarteak laguntza ematen du eskuragarri dagoen informazioa bildu, berrikusi eta eguneratzeko, eta Nafarroako Gobernuari ematen dio.

Horrela, 2019an, Cederna Garalur Elkarteak Pirinioaurreko arroen planoak berrargitaratzen lagundu zuen, baita Agoitz, Irunberri eta Orreagako turismo-liburuxketan ere.

### **ARRAS BAZTAN, APOPILO ETA PREST MARKEN FUNDAZIOA**

2018an "Arras Baztan" ekimena sortu zen, Baztango eragile politiko, sozial eta ekonomikoek modu parte-hartzailean bultzatuta, lurralde-marka identifikatzaile bat sortzeko helburuarekin. Hauek dira markaren helburuak: eremuaren garapen jasangarria bultzatzea, berezko paisaia naturala eta kulturala babestuz; ibarraren nortasun bereziaren ezagutza bultzatzea, ibarrean bertan eta ibarretik kanpo; Baztango paisaiak berezkoak dituen nekazaritza eta abeltzaintzaren ekoizpen estentsiboak sustatzea; eta pertsonen eta eragileen arteko lan kolektiboa babestea, nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, turismoarekin eta kulturarekin lotura duten zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

Cederna Garalur Elkartea, Baztango toki-garapenerako eragilearen bitartez, Arras-Baztan Fundazioko kidea da. Elkarte publiko-pribatu horrek 'Arras Baztan' marka kudeatzen du, eta bertan parte hartzen dute, halaber, Baztango Udalak, Elizondoko Lanbide Eskolak eta Baztango Zaporeak, Bertan, Baztango Artisauak, Apopilo eta Prest! Elkarteek.

Marka hori baztandarren nortasuna jasotzeko sortu da, eta, aldi berean, ibarraren lotune izateko. Modu itzulezinean eta behin betiko eragin nahi du eremuaren garapen osoan. Horretarako, helburu zehatz hauek ditu: eskualdean lan egiten duten sektoreetako pertsonen eta eragileen arteko lankidetzak bultzatzea; barneko sinergiak eta indarguneak ezagutzera ematea; herritarren dinamika soziala, ekonomikoa eta kulturala aktibatzea; eta ibarrak duen nortasun bereziaren ezagutza bultzatzea, ibarrean bertan zein ibarretik kanpo.

Marka erregistratuta, 2019an Cederna Garalur Elkarteak laguntza eman zion fundazioaren estatutuak egiten eta hura eratzeko eskritura sinatzen. Horrez gain, APOPILO eta PREST elkarteekin lankidetzan aritu da Turismoko erregistroan izena emateko.

Gainera, Cederna Garalur Elkartea APOPILO Elkartearekin lanean ari da bezeroaren arretarako eskuliburu bat sortzeko. Azterketa 2019ko azaroan hasi zen, eta 2020ko lehen hiruhilekoan aurkeztea espero dute.

Azkenik, Cederna Garalur Elkartea, Arras Baztan Fundazioaren kide den aldetik:

- Fundazioaren bilerak dinamizatu ditu.
- 2019ko otsailaren 18an eta 19an, Val de Drôme-ra (Frantzia) egindako bisitaldian parte hartu zuen, "Biovallée" ekimena ezagutzeko. Ekimen hori 2000. urtean jarri zuten abian ibar horretan, eskualde horren tokiko garapena sustatzeko, giza garapen jasangarrian oinarrituz. Horretarako, epe ertain eta luzerako konpromisoen gutun bat prestatu zen, eta, horren bidez, ekintzak eta erakundeak markara biltzea erraztu zen.

Gainera, bisitak ibarreko tokiko nekazaritza-estrategia eta energia-trantsizioaren estrategia ezagutzeko balio izan zuen.

### **SAKANAKO ENPLEGU TALDEA**

Zangozerrian enplegarritasuna lantzen duen taldea da, eta honako hauek parte hartzen dute: Cederna Garalur, AES (Sakanako Enpresaburuaren Elkarte), Sakana Garapen Agentzia, Altsasuko Udaleko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, herri horretako Sakana LHko Institutua eta NEZ-Nafar Lansare.

Batzorde horrek aurrera jarraitzen du Altsasuko Udalak ERSISI proiektuaren barnean hasi zituen ekintzekin. Taldearen helburuak dira: prestakuntza-premia identifikatzea; prestakuntza-programak enpresen eskarietara egokitzea, eta biztanleriaren enplegarritasuna hobetzea, bereziki egoera ahulean dauden taldeena; eta prestakuntza-ekintzak finantzatzea.

### **III JARDUNALDIA. "GOIZUETAN LAN ETA BIZI"**

Goizuetako Udalak duela hiru urtetik hainbat lekutako esperientzia ekintzaileak ezagutarazteko hitzaldi moduko jardunaldiak antolatzen ditu. Cederna Garalur Elkarteak, bere Garapen Agentziaren bitartez, jardunaldi horiek antolatzen laguntzen du, hizlariak identifikatuz, proposatuz eta gonbidatuz.

### **"IRATI TRENAREN AZKEN-AURREKO BIDAIA", IV. LEHIAKETA**

Duela lau urtetik hona, Ledea Udalak Irati trenaren memoria berreskuratzen duen literatura-eta argazki-lehiaketa antolatzen du, eta aldi berean hiribildua sustatzen du.

Lehiaketak bi sariketa ditu: kontakizun laburren lehiaketa bat, hiru kategoriarekin (11 urtetik beherakoa, 12-15 urte bitartekoa eta 16 urtetik gorakoa), eta argazki-lehiaketa bat. Sariak abenduaren 30ean banatzen dira Ledean, Irati trenaren azken bidaia ospatzeko; azken bidaia hori 1955eko abenduaren 31n izan zen.

Cederna Garalur Elkarteak Zangozan duen Eskualdeko Garapen Agentziak lagundu egiten du lehiaketaren oinarriak berrikusten, lehiaketa zabaltzen eta sari-banaketan parte hartzen du.

Irati trenak Zangoza eta Iruñea lotzen zituen. 1911tik 1955eko abenduaren 31ra arte egon zen martxan, eta garrantzi handia izan zuen Pirinioetako eta Mendialde Behereko eskualdeen ekonomia- eta industria-garapenean.

### **H2O GUREA.**

'H2O GUREA' mugaz gaindiko lankidetzaproiektu bat da, Europar Batasuneko EGEF - Eskualde Garapeneko Europako Funtsak Interreg VA programaren bitartez finantzatua. Proiektuan, besteak beste, Urdazubiko Udalak eta Communauté d'Agglomération Pays Basquek (Frantzia) esku hartzen dute. Proiektua Bidasoaren (Nafarroa), Nivelleren (Frantzia) eta Urumearen (Gipuzkoa) mugaz gaindiko arroetan uraren kudeaketa koordinatua egitera bideratuta dago. Proiektuaren helburu garrantzitsuenetako bat Urdazubi eta Ainhoa (Frantzia) udalerrietako ur edangarriaren hornidura ziurtatzea da, Urdazubin biltegitratzeko gaitasunak handituz eta Urdazubiko eta Ainhoako banaketa-sareak lotuz.

Cederna Garalur Elkarteak, Urdazubiko Udala ordezkatzuz, proiektuaren lan- eta jarraipen-bileretan esku hartu zuen. Horrez gain, CAPB (*Communauté d'Agglomération du Pays Basque*) erakundearekin sortutako berariazko lantaldean parte hartu zuen, Urdazubi eta Ainhoa arteko edateko uraren hornidura-sareak konektatzeko, eta ur-prestazioaren mugaz gaindiko zerbitzua arautzeko hitzarmen bat egiteko.

Horiez gain, Bertizen 2019ko abenduan egin zen proiektuaren azken mintegiaren antolaketan parte hartu zuen.

#### **ALTSASUKO MERKATARITZAREN IV. AZOKA**

Urrian egiten den urteroko ekitaldia da, eta Altsasuko Udalak eta herriko Merkatarien Elkarteak antolatzen dute.

Cederna Garalur Elkarteak Sakanan duen Garapen Agentziak Azokaren kudeaketa administratiboan eta antolaketan laguntzen du.

#### **JARDUNALDIAK ORDEZKARITZA GISA**

Atal honetan hirugarrenek antolatutako jardunaldiak sartu dira, eta horietara Cederna Garalur Elkarteak tokiko agintari baten ordezkari gisa parte hartu edo babestu ditu. Jardunaldi horiek izan dira:

- Mintegia: "ECOGYP: zerbitzu asistemikoak, harrapari nekrofagoak eta habitatak". 2019ko urria, Otsagabia.
- Aurkezpena: "Pirinioetako Lurralde Antolamendurako Plana (LAP1)". 2019ko uztaila, Ezkaroze. Antolatzailea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua.
- "REHABITAR" proiektuari buruzko jardunaldiak: tokiko administrazioetatik baso-berritzerako irtenbideak eta abandonatutako herrien erregulazioa. Urria.

#### **ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK.**

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluak sustatu zituen lehenengoz 1985ean, eta 1999an elkarlanean hasi ziren antolatzen Europar Batasunarekin. Nafarroan, jardueren antolaketa Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak koordinatzen du.

Jardunaldi horiek iraileko azken asteburuan edo urriaren lehenean egiten dira, eta helburua dute tokiko kultura-, natura- eta etnografia-ondarea herritarrei hurbiltzea, tokiko ondare-mugarrien inguruko jarduerak antolatuz; besteak beste, azokak, bisita gidatuak, ate irekien jardunaldiak eta abar.

2019an 50 herrik egin zuten bat ekimen horrekin. Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak hainbat ekintza antolatzen, koordinatzen eta zabalitzen parte hartu du: besteak beste, Irunberriren antzinako buztingintza ogibidea gogoratzeko ekitaldia; Agoitzen agaramontarren eta beaumontarren arteko bakearen sinaduraren ordezkari; Urraulgoitiko "Lantegia eta aisialdia" irudikapen-multzoa.

Orreaga eskualdean, tokiko erakundeekin, elkarteekin eta enpresekin elkarlanean jardun du inguru horretako ekitaldiak antolatzen eta zabaltzen: besteak beste, Bunkerren ibilaldi gidatua Orreagan; Eugiko Arma Olara eta Erroko hilerrietara eta Abaurregaineko San Migel baselizara egindako bisita gidatuak.

Era berean, Zangozerrian, eskualdean programatutako jarduerak koordinatu eta gainbegiratu dira: bisita gidatuak Oibar, Galipentzu, Lergako Arbaizko Santa Elena eliza, Xabierko gaztelua eta Eslabako Santa Criz erromatar hiria; Ledeko VII. erromatar festa; Casedako "Napoliko kapitaina" pintura azkarreko I. lehiaketa; Esako Leyre musika-gunea eta "Potxaren VII. gorazarrea" lehiaketa Zangozan.

### **ENPLEGUAREN INGURUKO TOKIKO EKIMENAK: ZALDU JATETXEA**

2018an, bi emakumek osatutako mikrokooperatiba batek bere gain hartu zuen Oroz Beteluko irin-errotan zaharrean dagoen "Zaldu" jatetxe-tabernaren kudeaketa.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak enpresa horrekin eta udalarekin lanean jardun zuen negozioa sendotzeko proiektuan.

### **KINTOAN BARN**

'Kintoan Barna' mugaz gaindiko lankidetzaproiektu europarra da, eta Nafarroako eta Frantziako 13 bazkidek parte hartzen dute; horien artean daude Esteribarko Udala, Zubiriko eta Larrasoañako kontzejuak, eta Eugiko kontzejua, taldeburu gisa diharduena.

2,8 milioi euroko aurrekontuarekin, proiektu honen helburua da Donibane Garazi-Kintoa-Iruñea korridore geografikoa helmuga turistikoa bihurtzea, baliabide natural eta identitarioen balorizazioari, ondareari, historia erkideari eta gastronomiari lotuta, eta, horrela, tokiko garapen sozioekonomikoari laguntzea, eta despoblazioa saihestea.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak, batetik, Esteribarko kultura-baliabideei turismo-balioa nabarmentzeko Ekintza Plana definitzeko bileretan parte hartu zuen. Gainera, proiektuak ibarreko kultura-baliabideei buruz egin duen azterlana berrikusi eta ekarpenak egin dizkio, kultura-ondare immaterialaren aldez aurretiko inbentarioa egiteko xedearekin.

### **KLINA: NAFARROAREN BIDE-ORRIA KLIMA ALDAKETAREN AURKA.**

HCCN-KLINA klima-aldaketari aurre egiteko ibilbide-orriak Nafarroan ingurumen-estrategia integral eta transbertsal bat onartu eta ezartzeko behararen ondorioz sortu da klima-aldaketari aurre egiteko, isurpen gutxiko ekonomiarako eta lurralde iraunkor eta erresilienterako trantsizioa sustatuz. 'KLINA' Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Kontseilaritzaren ekimena da.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak "*O me atienden ya o me voy*" antzerki-emankizuna zabaltzen eta antolatzen lagundu du, Esan eta Zangozan.

### **KULTURGUNEA.**

'Kulturgunea' Agoizko Udaleko Kultur Mahaia da, eta herriko kultur jarduerak eta jaietako egitaraua koordinatzeaz arduratzen da. Cederna Garalur Elkarteak mahai teknikoko kidea da, eta hala izanik, aldizkako lan-bileretan esku hartzen du.

### **LIFE NATURA 2000 HARTZA - 'OSO PARDO' FUNDAZIOA.**

LIFE Programaren bidez finantzatutako proiektu europarra da, eta Kantauri mendilerroan hartz arrearen populazioak babestea du helburu, Asturiasen eta Kantabrian batez ere.

Proiektu horren arduradunentzat, eskualde horietako hartz arrearen populazioek ez soilik ez dute abeltzaintza-sektorearekin gatazkarik sortzen, baizik eta erakargarritasun turistikoa dira, eta tokiko garapenean laguntzen duen produktu bat sortu dute.

2019an, 'Oso Pardo' Fundazioa, proiektua koordinatzen duen erakundea, hainbat aldiz etorri zen Nafarroara proiektua azaltzera, hartz natura guneetan berriz sartzeari defendatzera eta haran kantauriarrek animalia-espezie horren inguruko proiektu turistikoak abian jartzeko orduan izan duten esperientzia azaltzera.

Cederna Garalur Elkarteak bi bileretara gonbidatu zuten:

- 2019ko maiatza. Ezkaroze. "Elkarrizketa irekiak" foroa. Antolatzailea: UAGN
- 2019ko uztaila. Erronkari. Aurkezpen-jardunaldia: "Life Natura 2000 Hartza". Antolatzailea: 'Oso Pardo' Fundazioa, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua eta Erronkariko Interpretazio Zentroa.

Gainera, dibulgazio-ekintzen barruan, 'Oso Pardo' Fundazioak Zaraitzuko eta Erronkariko ordezkariek Somiedora (Asturias) gonbidatu zituen, hartzarekiko bizikidetzari dagokionez bertatik bertara ezagutzeko hango erakundeen, abeltzaintzako enpresen eta tokiko zerbitzuen esperientziak. Irailaren bigarren erdian egin zuten bisita hori, eta Erronkariko eta Zaraitzuko 40 ordezkarik parte hartu zuten, Cederna Garalur Elkartearen Tokiko Garapenerako Agentziarekin batera.

### **HERRITARREN PARTAIDETZARI BURUZKO OROITZA-TXOSTENA**

Nafarroako Gobernuaren Herritarren Partaidetzarako Arreta Zerbitzuak txosten bat egiten du duela zenbait urtetik hona: "Nafarroako herritarren parte-hartzearen egoera". Txosten horrek toki-erakundeek eta herritar-taldeek burututako tokiko partaidetza-prozesuak jasotzen ditu.

Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan dihardu Nafarroako Mendialdeko eremuan eskaera zabaltzen, baita tokiko parte-hartze prozesuei buruzko informazioa biltzen eta Nafarroako Gobernuari bidaltzen ere.

### **PIRINIOETAKO HARTZAREN INGURUKO MAHAIA.**

2018az geroztik, Pirinioetako ibarretan hainbat bilera egin dira toki- eta eskualde-administrazioen, basozaintza-zerbitzuen eta abeltzaintza-sektoreko ordezkarien artean, Frantziatik hartz arreak berriz sartu izana eta Pirinioetako haranetan horrek izan dezakeen eragina ebaluatzeko, zehazki Erronkari haranean.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak eztabaida-mahaietan parte hartu zuen, foro eta jardunaldietara joan zen, eta Nafarroako Gobernuaren eta abeltzaintza-sektorearen arteko bitartekari gisa jardun zuen, azken horien eskaerak Gobernuari helarazteko eta bestelako aukerak bilatzeko; besteak beste, abeltzaintza-sektorea babesteko laguntza bat kontratatzea edo abeltzaintzako ustiategien aparteko zaintzak dakarren aparteko lanagatik.

Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak honako jardunalditan eta bileretan parte hartu zuen:

- 2019ko maiatza. Erronkari. Helburua: hartza Pirinioetan berriz sartzeko proiektua aurkeztea, eta proposamena Erronkariko eta Zaraitzuko herritarrekin kontrastatzea, haien premien arabera.
- 2019ko urria. Erronkari. Foro irekia: "Hartzaren inguruko elkarrizketak" Antolatzailea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.
- 2019ko azaroa. Iruñea. Jardunaldia: "Hartz arreearen presentzia Nafarroako Pirinioetan". Antolatzailea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.

### **METROBASERRI-HELPBIDEA.**

'Metrobaserri' Nafarroako Babes Zibileko Departamentuaren, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen parkearen eta Tracasa Instrumental-en arteko lankidetzaproiektua da. Proiektuaren helburua da posta-helbide bat geolokalizatzea landa-eraikein bakoitzaren identifikatzaile uniboko batekin; bereziki baliagarria larrialdi-zerbitzuentzat. Identifikatzaile hori "Helpbidea" da, eta lokalizazioa "Metrobaserri" bidez egiten da, udalerrriaren mapa topologiko bat, itxura batean PDF formatuko metro-planoen antzekoa; horrek aukera ematen du eraikine bakoitza azkar eta erraz aurkitzeko eta bertara nola iritsi jakiteko.

2018an Cederna Garalur Elkarteak Mendialdeko eta Bortzirietako udalen artean zabaldu zituen laguntzak, eta Zubieta, Leitza eta Goizuetako sakabanatuak identifikatzen lagundu zuen. Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren laguntzak eskatu zituen beste sei udalerrirentzat.

Laguntzak eman ondoren, 2019an Cederna Garalur Elkarteak Metrobaserri proiektua Bera, Arantza, Lesaka, Etxalar, Sunbilla, Igantzi, Arano, Ituren eta Areso udalerrietara zabaltzen lagundu zuen, sakabanatuak identifikatu zituen, sakabanatu horien helbide fisikoak egiaztatu zituen eta planoen bertsioak berrikusi zituen, azken onarpena eman arte.

### **NAVARREFA.**

'Navarrefa' Interreg POCTEFA VA programak finantzatutako Europako proiektuetan parte hartzen duten Foru Komunitateko entitate eta erakunde guztiak biltzen dituen sarea da. Sare hori Nafarroako Gobernuako Erakundeekiko Harremanetarako Kontseilaritzaren Nazioarteko Proiektzio Zerbitzuak koordinatzen du, hiru helbururekin:

- Erakunde parte-hartzaileei proiektuak kudeatzeko prestakuntza eman.
- Europako deialdiei buruzko informazioa eman.
- Erakundeen arteko koordinazioa, komunikazioa eta ezaugutzen transferentzia hobetu.

Helburu horiek lortzeko, Navarrefak gaikako hainbat mintegi antolatzen ditu urtean zehar.



Cederna Garalur sarearen parte da, Ederbidea proiektuaren erakunde onuradun gisa, eta proiektuetan parte hartzen duten toki-erakundeen ordezkari gisa. 2019an, gure Elkaratek Navarrefak otsailean eta azaroan antolatutako bi saioetan parte hartu zuen, "Berdintasuna eta genero-ikuspegia" eta "Kontratazio publikoa"ren inguruan.

### **KLIMAREN ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNA.**

Europako ekimen bat da. Horren bitartez, tokiko gobernuek erantzukidetasuna hartzen dute berotegi-efektuko gasak murrizteko, eta ikuspegi komun bat hartzen dute klima-aldaketa arintzeko, klima-aldaketara egokitzeko eta energia-pobreziari aurre egiteko. Nafarroan, ekimen hori LURSAREA NASUVINSAK bultzatzen du, LIFE NAdapta proiektu europarraren barruan.

2019an Nafarroako Mendialdeko 32 udalerrik egin dute bat itunarekin: Ultzama, Lizoain-Arriasgoiti, Ezporogi, Lekunberri, Lesaka, Donamaria, Doneztebe, Oibar, Ziordia, Urdiain, Arruazu, Arakil, Irañeta, Arbizu, Esa, Iturmendi, Bakaiku, Ledea, Esteribar, Baztan, Irunberri, Altsasu, Etxarri-Aranatz, Irurtzun, Agoitz, Ergoiena, Olazti, Uharte-Arakil, Zangoza, Lakuntza, Kaseda eta Bera.

Bestalde, Cederna Garalur Elkaratek Nasuvinsaren ekintzak koordinatu ditu Pirinioaurreko arroetan programa hori bultzatzeko, Agoitz, Irunberri, Urrotz Hiria, Lizoain-Arriasgoiti eta Orotz-Beteluko udalak parte hartzera animatuz.

### **ERROIBAR - ERRONKARIKO MIKOLOGIA PARKEA.**

Parke mikologiko hori 2018an jarri zen martxan, eta Erroibar, Auritz eta Orreagako udalerriak hartzen ditu barne. Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programak abian jartzeko behar ziren inbertsioak finantzatu zituen. Gerora, udalek laguntza teknikoa kontratatu zuten eremua kudeatzeko.

2019an, 'Cederna Garalur Elkaratea' Eskualde Garapenerako Agentziak laguntza tekniko hori kontratatzen lagundu zuen, eta lizitaziorako kudeaketaren bideragarritasun-txostena egin zuen. Horiez gain, maiatzean eta ekainean Kontratazio Mahaian parte hartu zuen. Ondoren, kudeaketa esleituta, Agentziak enpresa esleipendunari bisitak eta jarduerak antolatzen, sustatzen eta zabaltzen lagundu zion.

Bestalde, Cederna Garalur Elkaratek parkearen sustapen-bideoan eta espazioaren mapagidaren diseinuan eta edukietan ere lagundu zuen.

### **EDERBIDEA ZENTROEN BIDERAGARRITASUN PLANA, PLAZAOLAREN BIDEAN.**

Ederbidea Europako lankidetzaproiektu bat da, Interreg IVA programaren bidez batera finantzatua. Horretan, besteak beste, Nafarroako Gobernuak, Plazaola Partzuergoak eta Imozko Udalak parte hartzen dute, Cederna Garalur Elkaratearekin batera. Proiektu horren helburua zikloturismoa eta mugikortasun iraunkorra bultzatzea da, Baionak (Frantzia), Donostiak (Gipuzkoa) eta Iruñeak (Nafarroa) osatutako triangelu geografikoan hiru hiriburu horien arteko interkonexioa burutuz.

Beste ekintza batzuen artean, proiektu horrek ahalbidetu du Leitzan, Lekunberrin eta Latasan (Imotz) herrietan hiru harrera-zentro zikloturista martxan jartzea, Plazaolako natura-bidearen zatiaren barruan.

Latasako zentroa Plazaola trenaren garai bateko geltokian dago. Zentro hori kudeatzeko, Imozko Udalak lehiaketa publikoa egitea erabaki zuen. Cederna Garalur Elkarateak kudeaketaren esleipen-prozesuan parte hartu zuen: lehiaketako baldintza-agiria berrikusi, kontratazio-mahaian parte hartu.

Bestalde, zentro horiek abian jartzeari amaiera emateko, Turismo Departamentuak ondoren aipatzen diren gai horiei erantzun zien azterlan bat egitea erabaki zuen:

- Zer gaitasun du Ederbidea proiektuak eremuan ekonomia-jarduna garatzeko?
- Leitza-Lekunberri-Latasa ardatzaren negozio-eredua definitu.
- Gobernantza-eredu bat definitu, Ederbidea zentroen negozio-eredua kudeatuko duena, baita Ederbidea ibilbidean parte hartzen duten eragile publiko eta pribatuek beren gain hartu behar duten zeregina ere.

Azterketa hori ANELEk egin zuen, Cederna Garalur Elkaratearekin elkarlanean, 2019ko azken hiruhilekoan.

#### **BANDA ZABALEKO PLAN ZUZENTZAILEA, 2016-2020.**

2019ko bigarren erdian, Cederna Garalur Elkarateak Zaraitzuko adarreko Banda Zabaleko TAPen (Tokiko Azpiegituren Plana) obren aurrerapenaren jarraipena egin zuen. Halaber, eskualdean finkatzeko asmoa duten hainbat operadoreen Banda Zabalaren zerbitzu-eskaintzak zabaldu zituen.

Horrez gain, Elkartea Nafarroako Mendialdeko udalerrien eta populazio-entitateen Interneteko benetako estalduraren inbentarioa egiten hasi zen, toki-erakundeek konektibitateari buruz egindako oharra eta kexak jasoz.

Halaber, Erroibarrekin harremanetan egon ginen, 'Guifi.net' ekimenaren bidez horren hedapen-eredua ezagutzeko, esperientzia hori beste udalerrri batzuetan erreplikatzeko asmoz.

Bestalde, 2019ko azken hiruhilekoan bilera bat egin zen Nasertic-ekin, Erronkari ibarrean eta Zaraitzu ibarraren hegoaldean banda zabaleko Internet konexiorik ez dagoela jakinarazteko, eta egon daitezkeen irtenbideez galdetu da; besteak beste, TAP berri bat garatzea, operadoreei zuzeneko dirulaguntzak ematea, eta abar.

Horrez gain, Aizpurgiko (Nabaskoze) eta Itzalleko (Galoze) kontzejuetako ordezkariekin bilera egin ziren, sakelako telefonoen eta Interneten estaldura eza eta telefonia finkoko zerbitzuaren estaldura txarraren arazo zehatza aztertzeke; horrek, besteak beste, eremu horietan ematen den osasun-zerbitzua arriskuan jartzen du.

Cederna Garalur Elkarateak bilera bat eskatu zuen Nafarroako Gobernuko ordezkariekin, arazo zehatz horiek aurkezteko. Egon daitezkeen beste irtenbide batzuk bilatzen lan egingo da.

### **NAFARROAKO LAN AUTONOMOAREN PLANA, 2017-2020.**

Nafarroako Lan Autonomoaren Planaren helburua da Foru Komunitateko mikroETeen eta autonomoen kolektiboaren enpresa-jarduera sustatzea. Lan Autonomoaren Plana Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusia garatu du, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua osatzen duten Langile Autonomoen Elkarteekin lankidetzan.

2019an Cederna Garalur Elkarteak hiru ekintzetan jardun zuen Plan horren barnean: Lan Autonomoaren III. Saria, eta Enplegu eta Lan Autonomoaren II. azokan.

- Lan Autonomoaren III. Sariketa. Cederna Garalur Elkarteak sari horiek zabaltzen lagundu zuen, eta norberaren konturako langileak hautagaitza aurkeztera gonbidatu zituen. Gainera, bi ekintzaileren hautagaitzak aurkeztu zituen: bat, Sunbillakoa eta bestea Burgikoa. Azken sustatzaile hori (Beatriz Zazpe, Lavandería la Pirenaicakoa) izan zen sarituetako bat.
- Enplegu Autonomoaren II. Azoka. Irailaren 28an eta 29an Iruñean izan zen ekitaldi hori zabaltzeaz gain, Cederna Garalur Elkarteak Tokiko Ekintza Talde gisa parte hartu zuen.
- Lan Autonomoaren txandakatze-poltsa zabaldu.

### **HURBILTASUNEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO PLANA, 2018-2020.**

Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritza Nagusiak 2018an jarri zuen abian programa hori, 2.500 biztanletik beherako herrietako tokiko merkataritzari beren negozioak eraldatzeko prozesuan babesteko, laguntzeko eta prestatzeko zerbitzu bat eskaintze aldera, bezeroen, egoiliarren eta turisten beharrak aztertu eta horiei erantzuteko eredu berri batean oinarrituta.

Horrela, Nafarroako Gobernuak tokikoaren balioaren aldeko apustua egin duten eta beren herrian eta inguruan errotze handia duten saltokiei lagundu nahi die.

Plan horrek bi jarduera-ildo ditu:

- Landa Merkataritzako Negozio Eredua: landa-eremuetako dendariei lagun egiteko eta prestakuntza emateko programa. Programa hori CEINek kudeatzen du.
- Merkataritza Erakartzeko eta Antolatze Eskualde Plana (EAEP), Nafarroan indarraldian dagoen Merkataritzaren inguruko Legeari buruzkoa. Planak udal-plan orokorretan merkataritza-guneak edertzea, merkataritza-guneen hiri-hobekuntza eta bestelako ekimenak sartzeko beharra planteatzen du.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak bi ildo horietan parte hartu du, bai abian jarritako jarduerak zabaltzen, bai hautatutako establezimenduei lagun egiten, bai CEINek antolatutako prestakuntza-saioetara joaten.

#### **Lagun egiteko programa: "Negozio-eredua. Landa-merkataritza, 2019".**

2019an, programa horretan parte hartzeko hautatutako hiru saltokietatik bi Cederna Garalur Elkarteak proposatu zituen. Nafarroako Mendialdean dauden bi establezimendu dira, Arantzan eta Etxalarren.

### **Prestakuntza-programa: "Landa-merkataritzaren eraldaketa, 2019".**

Prestakuntza espezializatua da, banakako tutoretzekin. Horretan, lagun egiteko planean hautatutako saltokiek eta Tokiko Ekintza Taldeetako langileek baino ez dute parte hartzen.

2019an prestakuntza-planak bost saio izan zituen, maiatzetik urrira bitartean:

- Maiatzak 9: "Zure landa-saltokia mapan" saioa.
- Maiatzak 16: "Visual Merchandising" saioa.
- Maiatzak 23: Komunikazio-saioko tutoretzak.
- Urriak 12: Erosketen plangintzako tutoretzak.
- Urriak 29: nire negozioaren salmenta hobetzeko funtsezkoak diren gaitasunen saioko tutoretzak.

2019an, Nafarroako Mendialdeko 3 saltokik parte hartu zuten, Arantza, Etxalar eta Irunberrikoak, baita Cederna Garalur Elkarteko bi teknikaririk ere.

### **Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeko Eskualde Plana (EAEP) Baztan-Bidasoa eskualdeetan.**

2019an, Baztan-Bidasoa eskualdeek Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Departamentuari bi eskualde horietako udalentsat landa-merkataritza bateratua Erakartzeko eta Antolatzeko Eskualde Plan berritzaile bat (EAEP) egitea proposatu diote.

Cederna Garalur Elkartea arduratu zen Baztan-Bidasoko eskualdez gaindiko EAEParen proposamena dinamizatzear, eta udalekin eta merkatarien elkarteekin batera proposamen bat egin zuen. Proposamen hori Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Departamentuari bidali zitzaion, eta onartzeko zain zegoen, 2020. urtearen hasierarako espero baitzen.

EAEPa egiteko, 3 bilera egin ziren Plana zehazte aldera, eta beste bi barne-bilera barne-funtzionamendua zehazteko. Bilerak dinamizatzear gain, Cederna Garalur Elkartea administrazioaz arduratzen da, aktak eta ekarpenak jasoz eta dokumentazioa bidaliz.

### **NAFARROAKO GOBERNUAREN LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO PLATAFORMA (NALEP)**

2019tik aurrera, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen mende dauden erakundeek elektronikoki lizitatu behar dituzte beren kontratu publikoak, kontratazio horien kudeaketan hedapena eta gardentasuna bermatuko duten tresnak erabilita. Europako zuzentarau horri erantzunez, Nafarroako Gobernuak lizitazio elektronikoaren NAPEL plataforma garatu zuen. 2019an, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, doako hainbat ikastaro antolatu ditu lizitazioez arduratzen diren teknikariak prestatzeko.

Bestalde, Cederna Garalur Elkartea ere Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen mende dago, eta, beraz, urrian Cederna Garalur Elkarteko bi teknikari NUPen emandako lantegian izan ziren.

### **2019ko 'VIANAKO PRINTZEA' KULTURAREN SARIA. FERNANDO HUALDE HAUTAGAITZAREN AURKEZPENA.**

2019ko martxoan, Cederna Garalur Elkartearen zuzendaritza-batzordeak Nafar Ateneoaren proposamenari babesa ematea erabaki zuen, Fernando Hualderen hautagaitza 2019ko Vianako Printzea Kulturaren Sarira aurkezteko.

Nafarroako Mendialdeko ondare ez-materiala ikertzen eta zabaltzen egindako lan garrantzitsuak ekarri du hautagaitzari babesa ematea, bere liburuen, erreportajeen eta Nafarroako ondare ez-materialaren Artxiborako adinekoei egindako elkarrizketen bidez. Halaber, Erronkarikoa izanik, ibarreko elkarte ugarirekin lankidetzan dihardu, eta Pirinioaurreko arroetako udalekin lankidetzan aritzen da espazioei eta tradizioei balioa emateko eta horiek berreskuratzeko.

### **PIRINIOETAKO LAN KOMUNITATEAREN (PLK) PIRINIOETAKO MUGAZ GAINDIKO ESTRATEGIAREN AURKEZPENA.**

Pirinioetako Lan Komunitatea (PLK) mugaz gaindiko lankidetzarako eskualde arteko erakundea da; horretan, Pirinioekin muga egiten duten eskualde guztiek parte hartzen dute, baita Andorarak ere. PLKren helburua Pirinioen garapenean laguntzea da, Pirinioen erronkak kontuan hartuz eta bere indarguneetan oinarrituz. Duela urte batzuk arte, PLKren lan-tresna nagusia Interreg POCTEFA Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Programa kudeatzea zen.

Hala ere, 2016an, PLK-k planteatu zuen bere zeregina indartu beharra zeukala Pirinioetako lurraldearen garapenean, eskualde parte-hartzaileen arteko lankidetzara indartuz eta Pirinioetako lurraldearen nortasuna eta premiak Europan defendatuko zituen lurralde-"lobby" bat sortuz. Xede horrekin, Pirinioetako Estrategia (PIE) garatu zen, eta 2018an onartu zen. 2024ra arteko ekintzak proposatzen ditu Estrategiak.

PIEk lau ardatz ditu: klimaren aldeko ekintza (Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia); Lurraldeko ekimenak eta erakargarritasunak sustatu; mugikortasuna, konektibitatea eta irisgarritasuna; eta gobernantza zeharkako ardatz bat.

2019ko martxoan, Cederna Garalur Elkarte Pirinioetako Estrategiaren aurkezpena gonbidatu zuten Iruñean. Bileran izan ziren Nafarroako Gobernuko Telekomunikazio Zerbitzua, Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansare eta Lursarea-Nasuvinsa. Bilera horretan Cederna Garalur Elkarteak defendatu zuen mugaz gaindiko tokiko ekintza taldeek landa-eremuen dinamizazio sozial eta ekonomikoan duten zeregina, zona bakoitzaz duen baliabideen eta jarduketa-mekanismoen gaineko ezagutza sakona, eta TETak PIEk sortuko dituen lantaldeetan sartu beharra azpimarratu zen beste behin ere.

### **DESI ADIERAZLEEN AURKEZPENA.**

"Digital Economy and Society Index"-DESI adierazleak adierazle estandarizatuak dira, eta Foru Komunitatean digitalizazioak Europar Batasuneko beste herrialde eta eskualde batzuekiko izan

duen aurrerapena alderatzeko aukera ematen dute. DESI adierazleek honako hauek hartzen dituzte barne: Interneten erabileraren aurrerapena eta banda zabaleko sare berrien ezarpena etxeetan; Interneten aurrerapena eta erabilera-mota enpresetan eta industrian; ingurune digitalen inguruan sortutako enpresa berriak; eta ikastetxeen eta unibertsitateen digitalizazioa.

Txosten hori 2018an egin zuten Tracasa Instrumentalek eta Lehiakortasunaren Euskal Institutuak, eta 2019ko otsailean aurkeztu zuten lan-mahai batean. Cederna Garalur Elkarteak mahai horretara gonbidatu zuten Tokiko Ekintza Talde gisa, Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko, unibertsitateetako, Nafarroako enpresa handietako eta ikerketa-zentroetako ordezkariekin batera.

Lan Mahai horretan txostenaren emaitzak aztertu eta eztabaidatu ziren, eta bertan zeuden erakundeen arteko hobekuntza- eta lankidetzak neurriak proposatu ziren, Nafarroan ekonomia digitalean aurrera egiteko, ekonomia digitala enpresan eta industrian ezartzeko, eta prestakuntza akademikoan eta enpresa-prestakuntzan ere aurrera egiteko.

### **LANGILEAK AUKERATZEKO PROZESUAK.**

Cederna Garalur Elkarteak laguntza ematen die erakunde publiko eta pribatuei langileak aukeratzeko prozesuetan. 2019an, Cederna Garalur Elkarteak prozesu horietan hartu du parte:

- Oibarko aterpetxea: deialdia zabaldu eta kontratazio-mahaian esku hartu.
- Turismo-laguntzailea Zangozako Turismo Bulegorako. Kontratazio-baldintzak jasotzen zituen plegua berrikusi; deialdia zabaldu; hautagai-zerrendak barematu, langileak aukeratzeko probak prestatzea eta horietan parte hartu.
- Bakaikuko Udala. Zerbitzu anitzetako langileak aukeratu: test-motako proba prestatu eta zuzendu.
- Baztango Balleko Etxea. Turismoko teknikari bat kontratatu, NEZ-Nafar Lansareren deialdiaren bidez, toki-erakundeek langabeak kontrata ditzaten. Eginkizunak: laguntzak eskatu, izapidetu eta horien jarraipena egin; enplegu-eskaintza prestatu; CVak jaso eta barematu; ebaluazio epai-mahaian parte hartu.
- Irurtzungo Udala: udako igerilekuetarako sorosleak eta mantentze-lanetako langileak hautatzeko test-motako probak prestatu eta zuzendu, eta garbiketako langileak aukeratu.
- Olaztiko Udala: udako igerilekuetarako sorosleak eta garbiketa-lanetako langileak hautatzeko test-motako probak prestatu eta zuzendu, eta zerbitzu anitzetako langileak eta kiroldegiko mantentze-lanak egiteko langileak aukeratu.
- Erronkariko Udala. Zerbitzu anitzetako langilearen lanpostua. Kontratazio-mahaian parte hartu.
- Uharte Arakileko Udala: test-motako probak prestatu eta zuzendu, garbiketa-lanetarako langileak aukeratzeko.
- Urdazubiko Udala. Zerbitzu anitzetako bi langile kontratatu, NEZ-Nafar Lansareren deialdiaren bidez, toki-erakundeek langabeak kontrata ditzaten. Eginkizunak: laguntzak eskatu, izapidetu eta horien jarraipena egin; enplegu-eskaintza prestatu; CVak jaso eta barematu; ebaluazio epai-mahaian parte hartu.

- Uztarrozeko Udala. Zerbitzu anitzetako langilearen lanpostua. Kontratazio-mahaian parte hartu.
- Zugarramurdiko Udala. Zerbitzu anitzetako langile bat kontratatu, NEZ-Nafar Lansareren deialdiaren bidez, toki-erakundeek langabeak kontrata ditzaten. Eginkizunak: laguntzak eskatu, izapidetu eta horien jarraipena egin; enplegu-eskaintza prestatu; CVak jaso eta barematu; ebaluazio epai-mahaian parte hartu.
- Petilla Aragoi hotelaren kudeaketa: deialdia zabaldu eta aukeraketa-probetan parte hartu.
- Zaraitzuko eta Nabaskozeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Aldi baterako lanposturako kontratatu. Hautagaien baremazioan lagundu.
- Zangozako Gazteriaren Etxerako langileak: kontratazio-baldintzak jasotzen zituen plegua berrikusi; deialdia zabaldu; langileak aukeratzeko probetan parte hartu.
- Zugarramurdiko Garapena SL. Langile bat kontratatu. Eskaintzak eta kontratazio-protokoloa lantzen lagundu, probak landu eta CVak barematu.

### **GURUTZE GORRIAREN LAGUNTZA PROGRAMA ERREFUXIATUENTZAT, AGOITZ.**

Gurutze Gorriak eta Agoizko Udalak Siriatik etorritako errefuxiatuak hartzeko sinatutako programa pilotua da.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak programa horretan parte hartu du; "Aurelio Leon" prestakuntza-gela uzten lagundu du pertsona horiei prestakuntza emateko, eta kolektibo horrentzako bizikletak bilatzen ere lagundu du.

### **PIRINIOETAKO TOKI ERAKUNDEEN ENPLEGU-PROGRAMA, LANGABETUAK KONTRATATZEKO.**

Erroibar-Aezkoa-Esteribarko garapen-agentziak eskualdean langabetuak kontratatzeke lan-eskaintza publikoaren deialdietan lagundu du:

- Esteribarko Udala: baso-langileak eta turismo-informazioko langileak kontratatu.
- Erroibarko Udala: baso-langileak kontratatu.
- Kintoko Mankomunitatea: baso-langileak kontratatu.
- Aurizko Udala: baso-langileak kontratatu.
- Orreagako Udala: aterpetxerako eta zerbitzuetarako langileak kontratatu.
- Luzaideko Udala: baso-langilea, aterpetxerako langilea eta turismo-informaziorako langilea kontratatu.
- Aezkoa Ibarreko Batzarra: baso-langile bat, Iratiko basozain-zerbitzurako langile bat eta turismo-informaziorako langile bat kontratatu.

Halakoetan, egin diren lanek ia kontratazio-prozesu osoa hartu zuten: Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu, jarduketan deskribapen-oroitidazkia, aukeraketa-prozesuetan parte hartu, laguntzen jarraipena eta azken justifikazioa egin.

### **PROMOBIOMASSE PROIEKTUA ETA BIOMASAKO LOGISTIKA ARLOA AGOITZEN.**

PROMOBIOMASSE nazioz gaindiko lankidetzeta-proiektu bat da, EBko Eskualde Garapeneko Europako Funtsekin (EGEF) batera finantzatua Interreg VB SUDOE programaren bidez.

Proiektuan, Katalunia, Andorra, Frantzia eta Portugalgo sei bazkidek parte hartzen dute, Nasuvinsa taldeburuarekin batera. Proiektu honen helburua zirkuitu laburreko baso-biomasaren kudeaketa jasangarrirako eredu integratua garatzeko lan-sare bat sortzea da. Cederna Garalur Elkarteak proiektura elkartutako bazkide gisa esku hartzen du.

Ekintzetako bat Pirinioetako eta Pirinioaurreko haranetako baso-aprobetxamenduen hondarrak biltegitratzeko, ezpaltzeko eta banatzeko biomasaren eremu logistikoa abian jartzea da. Honako hauek esku hartzen dute: Nasuvinsa, Lursarea, Agoizko Udala eta Pirinioetako Ibarretako Batzarrek.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak lankidetzan jardun zuen proiektu horrekin bi ekintzetan:

- Agoizko Udaleko eta Nasuvinsako ordezkariekin proiektuaren jarraipena egiteko hainbat bileratan parte hartu, Agoizko Biomazaren Eremu Logistikorako urbanizazio-planak eta sarbideak onartzeko helburuarekin. Halaber, 'Irati' Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuaren proposamenak helarazi ziren eta espazioa dinamizatu zen.
- Lursarearekin koordinatu Pirinioetako ibarretako batzarrak inplikatzeko (Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzu).

Gainera, Ustiapen Adituen Batzordearen barruan lankidetzan-jardunaldietan parte hartu genuen, eta 2019ko martxoan Iruñean egindako aurkezpen ofizialean parte hartu genuen.

#### **SLOWCAL PROIEKTUA: "ELIKADURA OSASUNTSU BATERAKO LANKIDETZA BERRITZAILEAK"**

Lankidetzan-proiektu hori 2019ko irailean aurkeztu zen Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen deialdira, "Ezagutzaren ekonomia"ren lerroan. Nafarroako Cederna Garalur Elkarteaz eta Nasuvinsa-Lursareaz gain, Euskadiko sei elkarteak eta Frantziako bik parte hartzen zuten.

SLAWCALen helburu nagusia Nafarroako, Euskadiko eta Akitania Berriko (Frantzia) nekazaritzako elikagaien enpresa txikien berrikuntza eta lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea da, elikagaiak ekoizteko, merkaturatzeko, eraldatzeko eta banatzeko prozesuetan "elikadura osasungarria" kontzeptua txertatuz.

2019ko udan, Cederna Garalur Elkarteak aurrez aurreko koordinazio-bileretan parte hartu zuen, eta hasierako proposamena berrikusi eta lan-plana hobetzeko ekintza zehatzen ekarpena egin zuen.

Euroeskualdearen deialdia 2019ko abenduan erabaki zen, eta proiektua atzera bota zen.

#### **ORBAIZETAKO ARMA- OLAREN BALIOA NABARMENDU.**



Orbaizetako arma-ola 2008an Interes Kulturalako Ondasun izendatutako multzo historiko garrantzitsua da. Aezkoa haraneko Batzarra ahalegin handia egiten ari da monumentu-multzoa berreskuratzeko eta tokiko turismo-erakargarri gisa balioa handitzeko.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak proiektu hau martxan jartzen laguntzen jarraitu zuen, baita toki horretako kafetegia egokitzeko finantzaketa bilatzen ere. Proiektua Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programaren deialdietara eta 2019ko Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntzetara aurkeztu zuen.

### **BURGIKO GARBIGUNEA.**

2019an, Cederna Garalur Elkarteak laguntza eman zion Burgiko Udalarari Ingurumena Bultzatzeko Planaren laguntzak justifikatzen.

### **NOBEL HIRIEN EUROPAKO SAREA.**

Ekimen hau 2018ko maiatzean Luarca (Asturiasko Valdeseko Kontzejua) eta Nafarroako Petilla Aragoi herrien arteko senidetzearen ondorioz sortu zen.

Sare horren helburua Nobel Saridunak jaio ziren landa-eremuko herriak senidetzea da, landa-eremuan turismo-produktu bat garatzeko, zientzia- eta kultura-erakargarritasunean oinarrituta, landa-inguruneari, lankidetzari, sormenari eta europar espirituari balioa emanen diona.

2019an Italiako Corteno Golgi herria sartu zen sarean, Camillo Golgi Medikuntzako Nobel Saridunaren sorlekua.

Cederna Garalur Elkarteak, Zangozan duen eskualde-garapenerako agentziaren bidez, Petilla Aragoiko udalari lagundu zion sare horren aurrerapenetan, senidetzearen bileretara joanez, eta sarea finantzatzeko programak bilatuz. Proiektuari buruzko dossier txiki bat ere landu zen, eta Nafarroako Gobernuarekiko kontaktuen jarraipena egin zuen, sarearen berri emateko eta erakundeen babesa bilatzeko. Halaber, sarearen ekintzei buruzko prentsa-oharrak prestatzen eta zabaltzen ditu.

### **XPLORA SAREA.**

Nasuvinsaren mendeko den jasagarritasunaren eta lurraldearen Lursarea agentziak sustatutako ekimena da, Nafarroako naturaguneak eta gune bereziak suspertzeko helburuarekin, gune horiek ingurumenerako eta gizarterako garapen-eragile bihurtzeko, ekonomikoki jasagarriak.

Xplora Sareak,aldi berean, hainbat ekintzak biltzen ditu bere baitan, besteak beste: sarean sar daitezkeen naturaguneak identifikatu; gune horietako baliabideak eta zerbitzuak identifikatu; erakunde eta pertsona arduradunak identifikatu; tokiko bideen sarea identifikatu eta berrikusi; teknikarien artean lanerako barne-sarea sortu; tokiko produktuan oinarritutako gizarte-ekintzailtzako ekimenak identifikatu. Ekintza horiei heltzeko, Xplora Sareak lurraldea kudeatzen duten toki-erakundeen lankidetzara du, baita Tokiko Ekintza Taldeena ere.

2019an, Erro/Aezkoa/Esteribarko Garapen Agentziak sare horrekin lankidetzan jardun zuen, Agentziak lan egiten duen 14 udalerrietan naturaguneen eta gune berezien, bidezidorren, informazio-guneen eta ekipamenduen informazio-fitxak eta datu-baseak osatuz.

### **ERREMENDIKO FINKA ESPERIMENTALA SUSPERTU.**

INTIAk finka experimental bat du Erremendia inguruan, Jaurrietako udal-mugaratean. Zaraitzu Ibarrek eskualde-mailako baliabide estrategikotzat jotzen du gune hori.

2018an, Cederna Garalur Elkartea Zaraitzu Ibarreko Batzar Nagusiarekin, INTIA eta Nasuvinsa Lursarearekin lankidetzan hasi zen finka biziberritzeko, eta atariko azterlan batean parte hartu zuen.

2019an, proiektuan laguntzen jarraitu zuen Elkartek; horretarako, hainbat bilera egin dira Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko Departamentuarekin eta INTIArekin, eraikinak berreskuratzeko akordioak bilatzeko eta Zaraitzu Ibarreko Batzarrak planteatutako proposamena kudeatzeko, tokiko herritarrekin eta toki-erakundeetako ordezkariekin partaidetza-prozesu batetik igaro ondoren.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkartek Landa Garapeneko Departamentuarekin izandako bileretan parte hartu zuen, planteatutako ekintzak helarazteko eta eskariak bideratzeko.

### **SASCIRATI.**

SASCIRATI mugaz gaindiko lankidetzarako europar proiektua da, Interreg VA POCTEFA programaren bidez finantzatua. Programa horretan Aezkoa eta Zaraitzu Ibarretako Batzar Nagusiek parte hartzen dute, Frantziako Garaziko eta Zuberoako Batzar Sindikalez gain. Bi helburu ditu: batetik, Iratiko baliabide naturalen kudeaketa bateratua egitea (larreen eta basoen kudeaketa, baliabide mikologikoak eta bisitarien joan-etorria antolatzea); eta bestetik, baliabide horietan oinarritutako kalitatezko turismo-eskaintza sendotzea.

2019an, Aezkoa Ibarreko Batzarrarekin lankidetzan jardun genuen proiektuan jasotako inbertsioak gauzatzeko, eta proiektuaren ekintzetan parte hartu genuen, baita koordinazio-bileretan ere, beste bazkide batzuekin batera.

### **ELIKADURA BURUJABETZA ETA MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK.**

2018az geroztik, Cederna Garalur Elkartea hainbat erakunderekin dihardu lankidetzan (INTIA, CPAEN-NNPEK edo Mundu Bat, kasurako), Pirinioetan elikadura-zirkuitu laburren ekintzak abian jartzeko. Cederna Garalur Elkartearen ekintzen artean daude: bileretan parte hartu, jardunaldien berri eman eta ekarpenak egin.

2019an, Cederna Garalur Elkartek bi ekintzetan lan egin zuen:

- Erronkariko HLHIko eskola-jantokian menu ekologikoak sartzeko proposamena. INTIArekin lankidetzan.
- Zaraitzu Ibarrean zatiketa-gela bat eta eraldaketa kolektiboko gela bat sortzeko proposamena.

Aldi berean, beste autonomia-erkidego batzuekin lan egin genuen lehen sektorea eraldatzeko azpiegiturak garatzearekin eta tokiko ekoizpena eta produktua balioestearekin lotutako esperientziak ezagutzeko.

Horiez gain, ondoren aipatzen diren bileretan eta ikastaroetan egon ginen:

- nekazaritza-ustategiari lotutako produktua-NULP ereduko lan-saioak, nekazaritza-ustategiari lotutako produktuek, eraldaketarekin edo eraldaketarik gabe, zuzeneko salmentarako bete behar dituzten baldintzei buruzkoak. 2019ko martxo-apirila.
- "Ekoalde", Nafarroako ekoizpen ekologikoa biltzeko zentro publikoaren aurkezpena. Noain, 2019ko martxoa. Antolatzailea: CPAEN/NNEK.
- Udako ikastaroak: "Elikadura-politikak toki-administrazioan". 2019ko ekaina. Antolatzailea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Udako ikastaroa: "Nekazaritza Politika Erkide (NPE) berriaren aukerak elikadura-sistema osasungarriak eta landa-eremu biziak lortzeko". Antolatzailea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Jardunaldia: "Nekazaritzako ustategien kudeaketa. Abeltzaintza-sistemak eta jasangarritasuna". 2019ko iraila. Antolatzailea: INTIA.
- Nazioarteko I. jardunaldia: "Gozo: eskola-elikadura osasuntsua eta onuragarria". Bilbo, 2019ko urria. Antolatzailea: Garapenetako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- "Reseloc: sektore ekologikoa eta tokikoa egituratzeko sarea, birgaitze kolektiborako" izeneko proiektuaren ondorioen aurkezpena. Iruñea, 2019ko urria. Antolatzailea: INTIA.

### **TURISMOA FRANTZIAKO DONEJAKUE BIDEAN: BIDEA SUSTATU ETA TURISMO BULEGOEI BABESA EMAN.**

2019an, Cederna Garalur Elkarteak Frantziako Donejakue bidea suspertzen lagundu du, bi arlotan:

- Bidearen mahaia: Turismo Zuzendaritza Nagusiak sustatutako lantaldea. Horretan, Nafarroako Gobernuko hainbat Departamentuk, Cederna Garalur Elkarteak, enpresa-elkarteek eta partzuergoek parte hartzen dute, Donejakue bidearen mantentze-lanak eta larrialdiak kudeatze aldera. 2019an, Cederna Garalur Elkarteko Garapen Agentziak aldizkako bileretan parte hartu zuen.
- Turismo-informazioko gunean Frantziako Donejakue bidean: Cederna Garalur Elkarteak Orreaga eskualdean turismo-ekitaldiak eta -jarduerak koordinatzen eta zabaltzen lagundu zuen, Orreagako Turismo Informazioko Bulegoarekin lankidetzan, baita udal informazio guneekin eta Nafarroako Gobernuko Turismo Bulegoen Sarearekin ere.
- Turismo Zuzendaritza Nagusiaren turismo-liburuxkak. Elkarlana Orreaga eskualdeko liburuxken informazioa eguneratzen.

## **IRUNBERRI, ARBAIUN, BENASA ETA UGARRON ARROILEN ETA LA PIEDRA ETA SAN ADRIANGO MALKARREN ERABILERA PUBLIKOA.**

2019an, Eskualdeko Garapen Agentziak, Kaizen enpresaren laguntza teknikoarekin batera, ingurune horien Erabilera Publikoko Plana eta ingurunean garatzeko programak egiten lagundu zuen. Plan horiek Nafarroako Gobernuo Ingurumen Zerbitzuak sustatzen ditu.

### **EKONOMIA GARAPENeko OSTIRALAK.**

"Ekonomia Garapeneko Ostiralak" Nafarroako Gobernuo Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzak abian jarritako ekimena da, Foru Komunitateko enpresak berrikuntza teknologikoan, kudeaketan, merkatu-hobi berrietan, nazioarteko merkatuetara hedatzen, Europako deialdi edo programetan eta bestelakoetan dauden berrikuntzei buruz informatuta edukitzeko.

"Ekonomia Garapeneko ostiralak" gaian adituak diren pertsonak emandako hitzaldi informatiboak dira; bi orduko iraupena dute eta Iruñeko Kondestable jauregian ematen dira. Hitzaldiak astean behin izaten dira.

Cederna Garalur Elkartek bere bazkideen artean programaturako hitzaldiak zabaltzen lagundu zuen, posta informatibo eta oroigarriak bidaliz, eta jardunaldietara joanez.

### **ZANGOZAKO POTXAREN VII. GORAZARREA.**

Duela zenbait urtetik hona Zangozako Udalak Zangozako tokiko produktu tradizional hori aldarrikatzeko asmoarekin antolatzen ditu jardunaldi horiek, tokiko barietateari balioa emanez. Bi egunez, hainbat ekitaldi antolatzen dira: potxak eta ardoa dastatzea, modu tradizionalan taldeka xehatzea edo nekazaritzako elikagaien merkatua, potxaren eta tokiko beste produktu batzuen inguruan.

Cederna Garalur Elkartearen Eskualdeko Garapen Agentziak antolaketan parte hartzen du: ekoizleak eta hizlariak gonbidatzen ditu, programa eta zabalkunderako materialak berrikusten ditu eta ekitaldia sustatzen du.

Berrikuntza gisa, Garapen Agentziaren bitartez nekazaritza ekologikoari eta ekonomia zirkularrari buruzko bi hitzaldi antolatu ziren.

### **ERRUMANIAKO TOKIKO EKINTZA TALDEEN BISITA.**

2019ko apirilaren 9tik 13ra bitartean, Cederna Garalur Elkartek Errumaniako hiru Tokiko Ekintzako Taldeetako ordezkariak hartu ditu: "*Lunca Jiului-Câmpia Desnățuiului*", "*Clisura Dunării*" eta "*Țara Vrancei*". Talde horiek egindako bisitaren helburua Cederna Garalur Elkartek turismoari lotutako tokiko proiektuen dinamizazioan duen funtzionamendua ezagutzea izan zen, baita egon litezkeen lankidetzak aztertzea ere.

Bisita horretan, lan-bilerak eta Nafarroako Mendialdean gauzatutako turismo-proiektuetarako bisitak egin ziren.

Lan-bileretan, Tokiko Ekintza Taldeak bat etorri ziren landa-turismoak despopulazioa saihesteko tresna garrantzitsua dela iritzita. Halaber, lurraldeen nortasun-balioei lotutako kalitatezko eskaintza bat garatzeko premia dagoela iritzi zioten, tokiko biztanleak lurralde osoari mesede egingo dion proiektu batean sartuz. Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak SICTED bezalako programen bidez kalitatearen kudeaketaren arloan turismo-sektoreari aholku ematen duen esperientzia luzea azaldu zien.

Orobat, Elkarteak hainbat lankidetzatza-ildotan lan egiteko interesa agertu zuen; besteak beste, belaunaldien arteko erreleboan eta artisautzan.

Topaketei amaiera emateko, Cederna Garalur Elkarteak hainbat azterketa-bisita antolatu zituen Nafarroako Mendialdeko turismoa, ondarea eta eskulangintza sustatzen diharduten enpresa eta erakundeetara. Horrela, Errumaniako Tokiko Ekintza Taldeek esperientziak ezagutzeko eta trukatzeko aukera izan zuten Plazaola Partzuergo Turistikoarekin, eta bisitak egin ziren Urraulgoitiko Santa Fe Ostatura, Joseneako Bordablanca finkara, Irunberriko garai bateko hiltegia eta gaur egun enpresen udal-mintegira, Irunberriko Arroilen interpretazio-zentrorra, Anizko Jauregia gasnategira eta Doneztebeko BTT Amezti zentrorra, eta Napar Bideak Elkartera, besteak beste.

### **ENPRESA MINTEGIAK.**

2019an, Cederna Garalur Elkarteak Agoitz, Elo, Irunberri, Iize, Burgi, Arike eta Muzkizko (Imotz) "Itsasonea" zentroko enpresa-mintegiak dinamizatzen lagundu zuen.

- Muzkizko Itsasonea zentroa (Imotz). Antzinako eraikina aldatu eta enpresa-mintegi bihurtu zuten. Eraikinak 5 lantegi eta erakusketa-areto bat ditu. Mintegia suspertzeko eta eskulangileak eta ekintzaileak erakartzeko xedearekin, Imozko Udalak laguntza tekniko pribatu bat kontratatzea erabaki zuen zentroa kudeatzeko. Erakunde kudeatzaileak prestakuntzarako eta aisialdirako lantegi batzuk sortzea proposatu zuen, eraikina eta zerbitzuak ezagutzera emateko. Cederna Garalur Elkarteak udalarekin lankidetzan dihardu zentroaren dinamizazioan.

Pirinioaurreko arroetako enpresa-zentroak Elkarteak eskualdean duen Toki Garapenerako Agentziak kudeatzen ditu.

- Agoizko enpresa-mintegia: udalak hiru bulego dituen mintegi bat du sustatzaileentzat eta sortu berri diren enpresentzat. Cederna Garalur Elkarteak, Pirinioaurreko Arroen Garapenerako Agentziaren bidez, zentro horren kudeaketaz arduratzen da.
- Eloko enpresa-mintegia. Eloko Udalak bi bulegoz osatutako mintegia du, tokiko eta eskualdeko enpresentzat eta, bereziki, sortu berri diren enpresentzat.
- Irunberriko enpresa-mintegia. Garai bateko udal-hiltegian dago, eta bi bulego eta lokal bat ditu.

Bestalde, Nasuvinsa-Lursarea Iizeko eta Burgiko industrialdeetan dauden balio anitzeko zerbitzu-zentrozen jabea eta kudeatzailea da. Bi industrialde horiek Zaraitzu eta Erronkari ibarretan daude, hurrenez hurren. 2019an, Cederna Garalur Elkarteak zentro horiek suspertzen lagundu zuen:

- Iizeko balio anitzeko zerbitzu-zentroa. Cederna Garalur Elkarteak hainbat kudeaketa egiten zituen hornituta zegoen nabe bat nekazaritzako elikagaien enpresa bati pasatzeko. Azkenik, poligono horretara hasiera batean Zaragozan zegoen luminaria-enpresa bat erakartzea lortu zen, eta enpresa horrek online merkataritzara jauzi egitea erabaki du.
- Burgiko balio anitzeko zerbitzu-zentroa. Babesa eta laguntza eman zitzaion Nasuvinsak, tokiko baliabideak balioetsiz eta sustatuz, Burgiko industrialdea garatzeko aukerak aztertzeko koordinatu zuen azterlanari. Halaber, zerbitzu-zentroko nabeak okupatu nahi dituzten enpresak eta ekintzaileak bilatzen lan egin zen.

Azkenik, Cederna Garalur Elkarteak Nasuvinsarekin elkarlanean jardun zuen "Opposa" fabrika zaharreko nabeetan dagoen enpresa-mintegia dinamizatzen, lau zereginetan:

- Koordinazio-bileretan parte hartuz.
- Interesa zuten enpresen eta ekintzaileen eskaerak jasoz.
- Lokalak eskatzeko baldintzak aztertuz.
- Mintegian instalatu nahi duten enpresei babesa emanaz.

#### **BAZTAN-BIDASOAKO ARDI LATX ARRAZAKO XVII. LEHIAKETA.**

Ardi latxari eskainitako azienda-azoka da Baztango Amaiur herrian urtero egiten dena. Azokan artzain-txakurren lehiaketa eta gazte lehiaketa bat ere egiten dira.

Cederna Garalur Elkarteak Baztanen duen Garapen Agentziak ekitaldian laguntzen du, baimenak eta lizentziak izapidetuz, eta lehiaketa antolatzeko laguntza publikoak eskatuz, izapidetuz eta jarraipena eginez.

#### **UDABERRIKO XX. EZTI AZOKA ETA AHARI LEHIAKETA, 2019.**

Udaberriko azoka urtero Elizondon egiten da, eta Baztango Udalak eta Cederna Garalur Elkarteak antolatzen dute. Azoka horretan, ahari-lehiaketa egiten da, eta horretan Baztango abeltzaintza ustiategietan hazitako animaliek har dezakete parte.

Cederna Garalur Elkarteak azoka antolatzen eta horren zabalpena egiten parte hartzen du:

- Antolakuntza eta aholkularitza:
  - Koordinazio-bilerak dinamizatu.
  - Baimenak eta lizentziak izapidetu.
  - Laguntzak eskatu, izapidetu eta jarraipena egin.
  - Azokan parte hartzen duten enpresen erregistroa eta jarraipena egin.
  - Sari-banaketa.
- Zabalpena: prentsaurrekoan antolatu eta tokiko hedabideei arreta egin.

### **PIRINIOTAR BEHI ARRAZAREN XXXII. LEHIAKETA ETA PIRINIOTAR BEHI ARRAZAREN III. ARGAZKI LEHIAKETA.**

Azoka hori urtero antolatzen dute irailean, eta behi-arraza horri buruzko garrantzitsuena da. Baztango Udalak eta Aspina-Conaspik (Pirinioetako arrazako behi-aziendaren Elkartearen Konfederazioa) antolatzen dute ekitaldia, eta Pirinioetako arrazari buruzko argazki-lehiaketa bat ere badu.

Cederna Garalur Elkarteak bi ekimenak koordinatzen ditu eta horien zabalpena egiten du.

- Pirinioetako behi-arrazaren lehiaketa.
  - Batzordearen bilerak dinamizatu.
  - Eginkizunak koordinatu eta banatu.
  - Laguntzak eskatu, izapidetu eta jarraipena egin.
  - Baimenak eta lizentziak izapidetu.
  - Erakunde laguntzaileen eta babesleen arteko koordinazioa.
  - Eskulangileak parte hartzera gonbidatu.
  - Prentsaurrekoak landu eta horietan parte hartu.
  - Laguntza egunean bertan.
- Pirinioetako arrazaren inguruko argazki-lehiaketa.
  - Argazki-lehiaketaren oinarriak landu eta horien zabalpena egin.
  - Parte-hartzaileak jaso eta egiaztapenak egin.
  - Lehiaketaren epaimahaian parte hartu.
  - Sari-banaketan parte hartu.

### **ESLABAKO SANTA CRIZ AZTARNATEGIA.**

2019an, Cederna Garalur Elkarteak, Zangozan duen Garapen Agentziaren bidez, Eslabako Santa Criz erromatar aztarnategia finkatzen lan egin du, interes turistikoa eta kulturalerako gune den aldetik. Horretarako, ondoren aipatzen diren ekintzetan lagundu edo parte hartu du:

- Tokiko eta eskualdeko gizarte- eta kultura-eragileekin bitartekaritza: Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritzako Ondare Historikoaren Zerbitzua, Vianako Printzea Erakundea, Lursarea, Nafarroako Unibertsitatea, Eslabako parrokia, enpresak, Upategi Kooperatiboa, Eslabako herritarrak.
- Santa Crizeko aztarnategiari buruzko erakusketa-gunea: gunea prestatzen lagundu, piezak hautatu, udalarekin eta kontratatutako pertsonarekin koordinatu.
- Erakusketa-gunearen inaugurazioa:
  - Zabalpena: promozio-kartela diseinatu, prentsa-oharrak idatzi eta argitara eman, hedabideei arreta egin, gonbidapenak bidali.
  - Inauguraziora joan, ekainaren 30ean. 140 pertsona bertaratu ziren.
  - Agintariei arreta egin.
- Santa Crizeko aztarnategiaren sustapen-bideoaren aurkezpena. Hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=IL4ZQ4bAu9c>
- Santa Criz erakusketa-gunearen katalogoari buruzko monografia: testuak idatzi, logoak aukeratu, diseinua gainbegiratu eta inprimatu.

### 3.3 Beste erakundeekiko lankidetza.

Zerrenda honetan, Cederna Garalur Elkartek lankide izan dituen erakunde batzuk aipatzen dira, erakunde elkartekideez gain:

Zk	Foroa, erakundea	Proiektu-adibidea
1	ANEL	Ederbidea zentroyen bideragarritasun-plana, Leitzañ, Lekunberrin eta Latasan.
2	APOPILO Elkartea	Turismo-ostatuñ sistema bat sortu.
3	AIN	SharEEN proiektua
4	Arras Baztan	Arras Baztan Fundazioa
5	Josenea Lan Elkartea	Biokonpostajeko instalazioa
6	Nafar Atenea	Fernando Hualderen hautagaitzari babes-a 2019ko Vianako Printzea Kulturaren Sarirako.
7	Altsasuko Udala	Mendi Batzordeak
8	Altsasuko Udala.	Garapenñ Batzordea
9	Berako Udala	Lehen Sektorereñ batzordea.
10	Luarçako Udala (Asturias)	Nobel Hirien Europako Sarea.
11	Esako Udala	Convivium 2019.
12	CEIN	Landa Merkataritzako Negozio Eredua
13	Turismo-kontseilua	Turismo-kontseilua
14	Plazaolako Turismo Partzuergoa	Plazaolako Turismo Partzuergoa
15	EUTSI Kooperatiba	Tokiko Agenda 21 Otsagabian
16	CPAEN-NNEK	Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa Erronkari Ibarreñ
17	Gurutze Gorria	Agoizko Udalaren errefuxiatuñ programa
18	Nafarroako Gobernuaren Zuzendaritza Nagusia	Kontagailu berdeak
19	Nafarroako Gobernuaren Barne ZN	Helpbidea
20	Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko ZN	Ekaiko zerrategiareñ Plan Zuzentzailea
21	Hartz Arrearen Fundazioa	Life Natura 2000 - Hartz-a
22	Sakanako enplegu-taldea	Sakanako enplegu taldea
23	INTIA	Eskola-jangela osasungarriak.
24	Aezkoako Batzar Nagusia	SASCIRATI
25	Agoizko Udaleko kultura-batzordea.	Kulturgunea.
26	LURSAREA	Pirinioetako estrategia
27	LURSAREA	Klimareñ eta energiareñ aldeko alkateñ ituna.
28	Nasertic	Banda zabaleko plan zuzentzailea, 2016-2019.
29	NASUVINSA	Agoizko logistika-arloa
30	NAVARREFA	Proiektuak kudeatzeko jardunaldiak.
31	Aranzadi Zientzia Elkartea	Pirinioetako erromatar galtzada.
32	Kanpondoa Sozietate Publikoa (Agoitz)	Bezeroari arreta egiteareñ inguruko prestakuntza.
33	Nafarroako Unibertsitatea	Eslabako Santa Criz erromatar aztarnategia.



## 4. ONDORIOAK.

2019an, Cederna Garalur Elkarteak tokiko 102 dinamizazio-proiektutan parte hartu zuen, langileak hautatzeko ikastaroak eta prozesuak kontuan hartu gabe. Proiektu horiek honako arloetan antola ditzakegu:

Arloa	Proiektu-kopurua
Lehen sektorea	8
Nekazaritzako elikagaiak, tokiko produktuak eta produktu ekologikoak	4
Merkataritza eta Turismoa	7
Ondare historiko, etnografiko, natural eta kulturalaren balioa nabarmendu.	32
Tokiko enpresa-ehuna suspertu	9
Pirinioak garatzeko estrategiak	2
teknologia berriak	5
Ekonomia zirkularra: Hondakinak kudeatzea	2
Lankidetzak.	4
Bestelakorik	11
Tokiko Agenda 21	17
<b>GUZTIRA</b>	<b>102</b>

Oroitzaduzki honetan irakur daitekeenez, Cederna Garalur Elkarteak proiektua sortzeko, martxan jartzeko eta kudeatzeko faseetan esku hartzen du. Fase horiek honako hauek dira:

- Proiektua definitzeko saio parte-hartzaileak.
- Lan-jardunaldi antolatuta.
- Solaskidetzak gizarte-eragileekin eta/edo tokiko eta eskualdeko agintariekin.
- Proiektuentzako finantziak bilatu.
- Oroitza-txosten baloratuak.
- Proiektuak deialdietara aurkezteko beharrezkoa den dokumentazioa bildu.
- Baimenak kudeatu.
- Proiektuak zabaldu: prentsa-oharrak idatzi eta argitara eman, kartelak landu, tokiko hedabideei arreta egin.
- Ekitaldietarako gonbidapenak egin.
- Bileren aktak jaso.

Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Gobernuko 31 erakunde eta departamentuekin elkarlanean jardun zuen tokiko proiektuak martxan jartzen.

Datu horiek, 3. kapituluaren hasieran aipatu moduan, ez dira osoak. Hala ere, Nafarroako Mendialdeko garapen ekonomiko eta sozialean Cederna Garalur Elkarteak dituen balio erantsiak erakusten dituzte: Nafarroako Mendialdeko lurraldeetan duen presentzia proaktiboa; lurraldeko eragileekin duen harreman eta lankidetzak sakona; urteetan zehar eskuratutako ezagutzaren transferentzia; landutako lurraldeen garapenaren ikuspegi globala eta integratzailea, haien baliabide eta problematikak aintzat hartuta; eta landa-eremuaren erronka berrietara egokitzeko malgutasuna.

